



GRADU AMAIERAKO LANA

OINARRIZKO ESKUBIDEEN APARTEKO MUGAKETA JARRAIPEN BEREZIKO BARNERATUEN FITXATEGIEN BIDEZ

Egilea:

Garazi Sainz Gobantes

Zuzenbideko Gradua, 2021-2022 ikasturtea

Zuzendaria:

Goizeder Otazua Zabala

Leioa, 2022ko maiatza

"Hiltzea debekatuta dago; beraz, hiltzaile guztiek zigorra jasoko dute, kopuru handitan eta tronpeten hotsean hiltzen ez badute behintzat."

Voltaire

"Esaten dute benetan ez dela herrialde bat ezagutzen bertako kartzeletan egon arte. Ez da nazio bat epaitu behar bere hiritarrik nabarmenenak nola tratatzen dituen ikusita, behartsuenak nola tratatzen dituen ikusita baizik."

Nelson Mandela

AURKIBIDEA

Laburdurak	4
1. Sarrera	6
2. Betearazpena zigor-prozesuan	8
3. Jarraipen Bereziko Barneratuen Fitxategiak Espainiako espetxe sisteman	12
3.1. Fitxategien kontzeptua, helburua eta sailkapena	12
3.2. Fitxategien bilakaera juridikoa	16
3.2.1. Jarraipen Bereziko Barneratuen Fitxategien abiapuntua	20
3.2.2. Oztupoak gainditzeko arauketa berria	21
3.2.3. Fitxategien legezkontasuna bidegurutzean: Auzitegi Gorenaren epaia	23
3.2.4. Azken eraldaketak arauzko baldintzak betetzeko	24
4. Fitxategiek espetxeratuen oinarrizko eskubideetan sortutako mugak	26
4.1. Nazio Batuek zehaztutako oinarrizko printzipioak	27
4.2. Norberaren askatasunerako eskubidea	28
4.3. Presoen tratamendua espetxeetan	29
4.4. Eguneroko bizitza egiteko gelen baldintzak	32
4.5. Norberaren erabilerarako objektuak	33
4.6. Ariketa fisikoa egiteko aukerak	33
4.7. Espetxe-sistemaren onuren mugaketa	34
4.8. Espetxean lan egiteko aukerak	35
5. Jarraipen Bereziko Barneratuen Fitxategien inguruko hausnarketak eta kritikak	36
6. Azken ondorioak	42
7. Erreferentzia bibliografikoak eta bestelako iturriak	45
7.1. Bibliografia	45
7.2. Araudia	47
7.3. Jurisprudentzia	48
I. Eranskina: Jarraipen Bereziko Barneratuen Fitxategien inguruko zenbait kasu eta testigantza	49

LABURDURAK

ACAIP: *Agrupación de los Cuerpos de la Administración de Instituciones Penitenciarias* (euskeraz: Espetxeetako Administrazioako Kidegoen Elkartea)

AG: Auzitegi Gorena

AGE: Auzitegi Gorenaren Epaia

AN: Auzitegi Nazionala

ANE: Auzitegi Nazionalaren Epaia

Art.: Artikulua

BJLO: Botere Judizialaren Lege Organikoa

EE: Espetxeen Erregelamendua

EK: Espainiako Konstituzioa

ELOO: Espetxeen Lege Organiko Orokorra

EZE: Espetxeratuen Zaintzarako Epaitegia

JBBF: Jarraipen Bereziko Barneratuen Fitxategiak (erderaz: *ficheros de internos de especial seguimiento*)

JBBF-1 ZK: Zuzeneko Kontrola (erderaz: *FIES-1 CD: Control Directo*)

JBBF-2 DA: Delinkuentzia Antolatua (erderaz: *FIES-2 DO: Delincuencia Organizada*)

JBBF-2 NA: Narkotrafikatzaileak (erderaz: *FIES-2 NA: Narcotraficantes*)

JBBF-3 BA: Banda Armatuak (erderaz: *FIES-3 BA: Bandas Armadas*)

JBBF-4 SI: Segurtasun-indarrak eta Espetxeetako Funtzionarioak (erderaz: *FIES-4 FS: Fuerzas de Seguridad y Funcionarios de II.PP.*)

JBBF-5 EB: Ezaugarri Bereziak (erderaz: *FIES-5 CE: Características Especiales*)

JBBF-NA: Narkotrafikatzaileak (erderaz: *FIES-NA: Narcotraficantes*)

JBBF-AB: Araubide Berezia (erderaz: *FIES-RE: Régimen Especial*)

GEEA: Giza Eskubideen Europako Auzitegia

GEEH: Giza Eskubideen Europako Hitzarmena

GEGMB: Nazio Batuen Giza Eskubideetarako Goi Mandatariaren Bulegoa

GGOK: Gardentasun eta Gobernu Onaren Kontseilua

GGOKE: Gardentasun eta Gobernu Onaren Kontseiluaren Ebazpena

KA: Konstituzio Auzitegia

KAA: Konstituzio Auzitegiaren Autoa

KAE: Konstituzio Auzitegiaren Epaia

LO: Lege Organikoa

MEJL: Mugaketa eta Ezarpen Judizialari buruzko Legea

OJ: Oinarri Juridikoa

OME: Osasunaren Mundu Erakundea

PKL: Prozedura Kriminalaren Legea

ZK: Zigor Kodea

1. SARRERA

Historiak aurrera egin ahala espetxe sistemak izandako bilakaera handia izan da, bestek beste, zigorraren aplikazioaren eta betearazpenari dagokionez. Begi bistakoa da, askatasunaz gabetzeko zigorrari buruzko legeriarekin batera, gizartea ere aldatu egin dela. Dena den, gaur egun oraindik ere gizartearen zati batek uste du espetxean dagoenak bertan egotea *merezi* duela eta egindakoagatik *ordaindu* behar duela. Ezjakintasunaren ondorio al da pentsamendu hori, ala askatasun oro kentzea al da gizartearentzat erredentziorako modu bakarra? Jarraipen Bereziko Barneratuen Fitxategiak al dira pentsamendu horren ondorio edo emaitza?

Jarraipen Bereziko Barneratuen Fitxategiak (aurrerantzean JBBF), edo gazteleraz FIES siglez ezagututakoak, Espainiako Espetxe Administrazioak erabiltzen dituen neurriak dira. Neurri horiek kontrol eta zaintza handiagoa dute, egindako delitu motaren, espetxeko ibilbidearen edo erakunde kriminaletan integratzearen arabera, dauden delitu-formula konplexuetara egokitzen den kontrola egiteko eta espetxearen ordena desegonkortzeko¹.

Fitxategien barruan, beraz, izaera oso ezberdinetako delituen ondorioz erruduntzat jotako pertsonak bizi dira, horien artean komunean ezer gutxi izan dezaketenak, baina, trataera berbera jasaten dutenak. Espainiako estatuaren kasuan, Espetxeetako Idazkaritza Nagusiak 2021eko abenduan egindako txostenean adierazi zuen bezala, orotara, Espainiako espetxeetan 45.095 preso zeuden 2021. urtearen amaieran, horiek 3 mailatan banatuz: 581 lehenengo graduan, 32.683 bigarrean, eta 8.758 hirugarrenean (3.073 barneratu sailkatu gabe geratuz)². Datu-baseari dagokionez, ordea, ezin daiteke esan espetxeratuen zein kopuru barnebiltzen den bertan, ez baita inoiz publiko egin.

2016. urtean datu horiek publiko egiteko eskaera egin zuen ACAIPEk (*Agrupación de los Cuerpos de la Administración de Instituciones Penitenciarias*), baina urte bereko apirilaren 20an Espetxeetako Idazkaritza Nagusiak eskaera gaitzetsi egin zuen, hurrengoa esanez: «*la información solicitada no se publica, por lo que para dar respuesta a tal petición sería necesario dedicar un número ingente de recursos tanto humanos como técnicos, dejando de desarrollar la labor encomendada al Ministerio por Real Decreto...*»³. Horren aurrean, ACAIPEk erreklamazioa jarri zuen Gardentasun eta Gobernu Onaren Kontseiluan (aurrerantzean GGOK), zeinak 2016ko uztailaren 22ko ebazpen bidez⁴, bide eman zion datuen publikotasunari. Haren ustetan «*facilitar información estadística sobre el número de internos que se hayan incluidos en cada uno de los grupos citados requiere una sencilla operación de búsqueda que no detrae ni excesivo tiempo ni excesivos recursos materiales o humanos y no afecta, en principio, a la seguridad nacional ni pública, no precisando de una acción previa de reelaboración*»

¹ 21/1996 Instrukzioa, abenduaren 16koa, JBBF delakoaren aplikazioa arautzen duena.

² Espainiako Barne Ministerioa, Espetxeetako Idazkaritza Nagusia, *Población reclusa penada según grado de tratamiento*, 2021eko abendua.

³ GGOKE 1996/2016, uztailaren 22koa, 1. aurrekariak, 2. puntua.

⁴ GGOKE 1996/2016, uztailaren 22koa, 4-8. OJ.

(4. OJ). Modu horretan, Kontseiluak ezarri zuen «*[que] debe estimarse la presente Reclamación, por lo que la Administración debe proporcionar al Reclamante información sobre el “número de internos incluidos en el Fichero de Internos de Especial Seguimiento (FIES)” desglosados por grados de tratamiento y grupo*» (8. OJ). Hala ere, gaur egun ez da barneratuen kopuruari buruzko informaziorik eman, fitxategien inguruko errealitatea erabat ezkutukoa bihurtuz.

Halaber, ezin dugu ahaztu espetxe-sistemaren azken helburua presoen berreziketa eta gizarteratzea dela (Espainiako zein Europako ordenamendu juridikoek adierazten duten moduan), eta baliteke arlo honetan gizarteak izan beharko lukeen garrantzitsuenetarikoa. Hori kontuan hartuz, ulergarria izango litzateke pentsatzea helburu hori lortzeko Administrazioak zenbait baliabide eskaintzen dituela.

Dena den, horrek oztopoak baino ez dizkio eragin eztabaidagai dugun JBBF honi. Izan ere, fitxategiak sortu zirenetik, asko izan dira honen erregulaziorako emandako instrukzio eta zirkularrak, baita horien kontra auzitegiek emandako epaiak ere. Adu batzuen aburuz horren bitartez bizi-modalitate berria sortzen ari zela esatera heldu da, erregimen itxiaren parekidea, alegia⁵.

Lan honen xedea, beraz, JBBF erregimena aztertzea izango da, zehazki, askatasunaz gabetutako pertsonen oinarrizko eskubideak errespetatzen dituen aztertzea. Horretarako, zuzenbide prozesalaren baitan oinarrizko elementu den betearazpena miatuko da, kontzeptu orokorrak aztertuz, eta, gerora, fitxategiek izandako bilakaera juridikoa ikertuz, horiek sortu zirenetik hasita gaur egunera arte. Era berean, jurisprudentziaren esanak ere aztertuko dira.

⁵ Lanean zehar hainbat autoreren ikuspuntua landuko da, horien ikuspuntua oso antzekoa izanik datu-basetik kritikatu beharrekoa zer den nabarmentzean: Cervelló Donderis, Arribas López, Brandariz García, Ríos Martín, Mapelli Caffarena...

2. BETEARAZPENA ZIGOR-PROZESUAN

Zigor-arloko prozesu baten emaitza hiru modutan baino ezin da amaitu: kondena-epai baten bidez, absoluzio-epai baten bidez edo largespen auto bidez. Betearazpen-prozesuari dagokionez, prozesu hori soilik gerta daiteke akusatua epaian zigortu badute; izan ere, epaia kondenatzailea bada, prozesuak geroko betearazpen-fase bat beharko du⁶.

Urteetan zehar, betearazpenaren izaera juridikoaren inguruan eztabaitu izan da. Exekuzioak, zigor askatasun-gabetzaileei dagokionez (gaur egun, espetxe-zigorra), epaian ezarritakoa betetzeko establezimendu bereziak behar ditu, baita haien funtzionamendua zuzentzeaz, haien segurtasuna mantentzeaz eta presoek eskubideak zaintzeaz arduratzen diren langile espezifikokoak ere. Horrek guztiak antolamendu judizialak dituen baliabideak gainditzen ditu, eta hura da, hain zuzen ere, Administrazio Publikoaren adar bati esleitu izanaren arrazoia, Espetxeetako Administrazioari, alegia. Hortik eratortzen da haren izaerari buruzko eztabaida, horri buruzko hiru teoria mantenduz: jurisdikzionala, administratiboa eta mistoa⁷. Hala ere, Espainiako Konstituzioa (aurrerantzean EK) oinarri hartuz, honek betearazpenari izaera jurisdikzionala esleitzen dion sistema diseinatzeko duela esan daiteke. Izan ere, «*lege data*» (hots, dagoen legearen arabera), funtzio jurisdikzionalak betearazpena barne hartzen du⁸, epaituz eta epaitutakoa betearaziz⁹.

Hala ere, betearazpenaz hitz egitean ezberdindu beharko da zigor-prozesuaren (eta horren ondoriozko kondena-epaiaren) betearazpenaren eta lan honetan aztergai diren Jarraipen Bereziko Barneratuen Fitxategien aplikazioaren artean. Izan ere, ezberdina da delitu bat bete izanaren ondoriozko kondena betearaztea eta behin kondena aplikatuta trataera berezitua ematea kondenatuari.

Zigor-arloko betearazpena posible izateko ezinbestekoa da titulu betearazle bat egotea. Titulu betearazle hura epai irmoa jasotzen duen dokumentua da, hau da, jurisdikzio-organo batek pertsona bati zigor bat edo segurtasun-neurri bat ezartzen zaiola adierazten duen borondate-adierazpen ezeztazina jasotzen duen dokumentu publikoa. Zigor-arloko prozesuan, nahikoa da titulu betearazlea dagoela egiaztatzea jurisdikzio-organo eskudunak kondena-epaiaren betearazpena ofizios hasi dezan¹⁰.

⁶ ESPARZA LEIBAR, Iñaki, "La ejecución en el proceso penal", MONTERO AROCA, Juan; GÓMEZ COLOMER, Juan Luis; BARONA VILAR, Silvia; ESPARZA LEIBAR, Iñaki; ETXEBERRÍA GURIDI, José F., *Derecho Jurisdiccional III, Proceso Penal*, 27. argitalpena, Tirant Lo Blanch, Valentzia, 2019, 542. or.

⁷ *Ibidem*.

⁸ *Ibidem*.

⁹ Printzipio hau hurrengo artikuluetan aurreikusten da: EK 117.3, BJLO 2.1, 984, 985 eta PKL 990. art.

¹⁰ ESPARZA LEIBAR, Iñaki, "La ejecución en el proceso penal", MONTERO AROCA, Juan; GÓMEZ COLOMER, Juan Luis; BARONA VILAR, Silvia; ESPARZA LEIBAR, Iñaki; ETXEBERRÍA GURIDI, José F., *Derecho Jurisdiccional III, Proceso Penal*, 27. argitalpena, Tirant Lo Blanch, Valentzia, 2019, 552-553. or.

Betearazpenaren amaierari dagokionez, zigorra amaitzeko berezko arrazoi bakarra zigorra osorik betetzea da. Dena den, badira ezohiko arrazoi batzuk, inguruabarren arabera aldatzen direnak¹¹.

Jarraipen Bereziko Barneratuen Fitxategien aplikazioari dagokionez, hauek Espainiako Espetxe Administrazioak erabiltzen dituen neurriak dira, behin kondena-epaiaren betearazpenari hasieran eman zaionean eta delitugilea, hala badagokio, espetxean sartzen denean ezarritakoak. Hauen helburua presoan talde jakin batzuei buruzko informazioa biltzea da, egindako delituagatik zein espetxean izandako ibilbideagatik, talde horien gaineko kontrol egokia egiteko eta espetxeetako gorabeherari aurreratzeko; baina inola ere ez kondena-epaian ezarritakoa betearaztea.

Hori oinarriztat hartuz, badirudi fitxategiek ez dutela inolako loturarik prozesu penala betearaztearekin, baina baieztapen hori ez da guztiz zuzena. Izan ere, fitxategien bidez kondena-epaia exekutatu ezin bada ere, kondena betearazteko zenbait aspektuk horrekin lotuta nabaria dute, preso jakin batzuen egoerari dagokionez, behintzat. Hots, ez da exekuzioa abian jartzea, hura aurrera eramateko modua baizik, non Espetxe Administrazioak esku har dezakeen zigorra betearazteko unean, epaian bertan jasota ez dauden neurriak aplikatuz. Hala, fitxero horien bitartez presoan talde jakin batzuei buruzko informazioa biltzea bilatzen bazen ere, erregimen itxiaren parekidea den bizi-modalitate berri gisa definitu ahal den horren bitartez zigor-arloko exekuzioa aurrera eramaten dela esan daiteke.

Eskuduntzari dagokionez, beraz, bi figura ezberdindu beharko dira ere: batetik, kartzelatuak fitxategietan barneratzeko eskumena duten organoak, eta, bestetik, zigor-arloko betearazpena burutzeko eskumena duten organoak.

Lehenengoaren kasuan, Espainiako Espetxe Administrazioak kudeatutako fitxeroak dira, hau da, Administrazio Publikoaren adar bati esleitzen zaion eginkizuna da. Zehazki, datu-base horren kontrola Espetxe Erakundearen («*Secretaría General de Instituciones Penitenciarias*» edo soilik «*Instituciones Penitenciarias*») esku dago, Estatuko Espetxe Administrazioaz arduratzen den Barne Ministerioko zuzendaritza-organoarean esku, alegia. Honek, nagusiki, espetxe-erakundeak bultzatu, zuzendu, kudeatu eta gainbegiratzeari buruzko eginkizunak betetzen ditu, zigor eta neurri penalek Konstituzioak aurreikusitako helburuak bete ditzaten. Horrekin batera, Espetxe Administrazioako zerbitzu, organismo eta zentroen jarraipen, analisi, ikuskapen eta koordinazio funtzioak egitea ere dagokio, besteak beste¹².

Bigarrenari dagokionez, Espetxeen Lege Organiko Orokorra (aurrerantzean ELOO) eta haren Erregelamendua (aurrerantzean EE) indarrean sartu zenetik hiru organo

¹¹ ESPARZA LEIBAR, Iñaki, "La ejecución en el proceso penal", MONTERO AROCA, Juan; GÓMEZ COLOMER, Juan Luis; BARONA VILAR, Silvia; ESPARZA LEIBAR, Iñaki; ETXEBERRÍA GURIDI, José F., *Derecho Jurisdiccional III, Proceso Penal*, 27. argitalpena, Tirant Lo Blanch, Valentzia, 2019, 558-560. or.

¹² 734/2020 Errege Dekretua, abuztuaren 4koa, Barne Ministerioaren oinarrizko egitura organikoa garatzen duena, 6. art.

jurisdikzionalak esku hartzen dute betearazpenean: legearen arabera eskumen funtzionala duen organoak, Espetxeratuen Zaintzarako Epaitegia (aurrerantzean EZE) eta, kasuaren arabera, funtzio oso zehatzak dituzten beste organo jurisdikzional batzuk¹³.

A) Eskumen funtzionala duen organoa

Eskumen funtzionalari dagokionez, argitu behar da zigor-arloko eskumenaz hitz egitean prozesu arruntak bereizi behar direla; izan ere, egindako delitu-motaren arabera, epaia betearazteko eskumena alda daiteke. Hala, betearazpena egokitu ahal izango zaio epai irmoa eman duen organo jurisdikzionalari (delitu larriengatikiko prozesuetan¹⁴, prozesu penal laburtuetan¹⁵ eta epaiketa azkarretan¹⁶) edo lehen auzialdiaz arduratu den organo jurisdikzionalari (delitu arinengatikiko prozesuen kasuan¹⁷).

Eskumena duen agintaritzak judizialak hainbat eskuduntza ditu zigor-arloko prozesuaren fase honetan, besteak beste: departamentu berezietan edo erregimen itxiko establezimenduetan sartzearen berri izatea, inkomunikazio-araubideko bisitak baimentzea, barneratuaren eta haren abokatuaren edo prokuradorearen arteko komunikazioetan esku hartzea, irteteko baimenak eta behin betiko askatasuna ematea...

B) Espetxeratuen Zaintzarako Epaitegia eta EZE Zentrala

Espetxeratuen Zaintzarako Epaitegiaren (aurrerantzean EZE) eginkizun nagusia espetxe-jarduera fiskalizatzea da, epaiak betearazteko fasean zein prebentziozko barneratuaren kasuan, presoek eskubideak bermatzeaz gain¹⁸. Hala ere, epaileak funtzio jurisdikzionalak baino ez ditu betetzen, bere egintza guztiak erreforman, apelazioan eta kexan errekurritu ahal izanik (kasu batzuetan, gaia jurisdikzio penalekoa baita, eta beste batzuetan, ordea, administratibokoa).

Arau orokorra da probintzia bakoitzean eta jurisdikzio penalaren barruan epaile bat edo gehiago egotea (BJLO 94.1. eta MEJL 3.1. art.). Hala ere, epaile hauen jurisdikzioa autonomia-erkidego bereko bi probintzia edo gehiagotara zabaldu ahal izango da (BJLO 94.2 eta MEJL 3.2. art.), baita jurisdikzioa probintzia osora hedatzen ez duten epaileak sortu ere.

¹³ ESPARZA LEIBAR, Iñaki, "La ejecución en el proceso penal", MONTERO AROCA, Juan; GÓMEZ COLOMER, Juan Luis; BARONA VILAR, Silvia; ESPARZA LEIBAR, Iñaki; ETXEBERRÍA GURIDI, José F., *Derecho Jurisdiccional III, Proceso Penal*, 27. argitalpena, Tirant Lo Blanch, Valentzia, 2019, 545-552. or.

¹⁴ PKL 985. art.

¹⁵ PKL 794. art.

¹⁶ PKL 803.3. art.

¹⁷ PKL 984. art.

¹⁸ Espetxe-legeriak xehetasunez arautu ditu Espetxeratuen Zaintzarako Epailearen eskumenak eta eginkizunak, horiek ELOOn aurreikusten dira, 76. artikuluan [V. Titulua, Espetxe Zaintzako Epaileari buruzkoa].

Bestetik, Espetxeratuen Zaintzarako Epaitegi Zentrala (EZE Zentrala) Madrilen egoitza duen epaitegia da, Espainia osoan jurisdikzioa duena (BJLO 94.4 art. eta MEJL 1. eta 6. art.). Legeak zehazten duenaren arabera, Espetxeratuen Zaintzarako Epaitegi Zentral bat edo bat baino gehiago egongo dira eta honen eskumena Auzitegi Nazionalak epaitu beharreko delituekin lotuta dago, ELOOn aurreikusita daudenak, alegia (BJLO 94.4. art.). Hala, bere esku geratuko dira, besteak beste, zigor askatasun-gabetzaile eta segurtasun-neurrien betearazpena, espetxeetako agintarien diziplina-ahalaren kontrol jurisdikzionala, espetxeetako presoek eskubide eta onuren babesa...

C) Beste organo jurisdikzional eskudun batzuk

Eskumen funtzionala duen organoaz eta Espetxe Zaintzako Epaileaz gain, badira zigor-arloko exekuzioan parte hartu ahal duten beste agintaritzak judizial batzuk: beste kausa baterako eskuduna den epailea, edozein epaile edo auzitegi, prebentziozko barneratuak mende dituen agintaritzak judizialak, askatasunaz gabetzeko zigor edo neurri bat ezartzen duen ebazpena helarazteko eta betearazteko Espainian eskuduna den agintaritzak judizialak, eta, azkenik, Zigor-arloko Epaile Zentrala.

3. JARRAIPEN BEREZIKO BARNERATUEN FITXATEGIAK ESPAINIAKO ESPETXE SISTEMAN

3.1. Fitxategien kontzeptua, helburua eta sailkapena

Jarraipen Bereziko Barneratuen Fitxategiak, edo gazteleraz FIES siglez ezagututakoak, Espainiako Espetxe Administrazioak erabiltzen dituen neurri batzuk dira¹⁹, 21/1996 Instrukzioak, abenduaren 16koak, sortutakoak; eta, gaur egun, 12/2011 Instrukzioak, uztailaren 29koak, araututakoak.

Fitxategi hauek izaera administratiboa duten arren, hauetaz hitz egiten denean ohikoa da JBBF delakoa “erregimen” terminoarekin batera entzutea, hots, hura eremu jakin bat arautzen duen legezko xedapen multzo gisa definitua izatea. Dena den, hauxe, berez, preso jakin batzuei buruzko informazio administratiboa jasotzen duen datu-basea baino ez da, establezimenduen segurtasuna eta ordena bermatzeko eta kartzelatu horietako batzuk babesteko xedea duena. Hau da, informazio penala eta prozesala ez ezik, hauen espetxe-informazioa ere biltzen du, baina inola ere ezin du ezarri erregelamendu bidez ezarritakoaz bestelako bizi-modalitate edo -erregimenik²⁰, ezta hauen sailkapena aurretik epaitu eta barneratuen tratamendua jasotzeko duten eskubidea debekatu ere²¹.

Helburua, beraz, presoen talde jakin batzuei buruzko informazioa biltzea da, egindako delituagatik zein espetxean izandako ibilbideagatik, talde horien gaineko kontrol egokia egiteko eta espetxeetako gorabehera aurreratzeko.

Fitxategien bilakaera aztertzean honek izan duen ibilbide osoari hartuko zaion arren, ezinbestekoa da aipatzea JBBFa sortu zenetik eztabaida sakona eman dela hura definitzeko momentuan, aditu batzuen aburuz horren bitartez bizi-modalitate berria sortzen ari baitzen, erregimen itxiaren parekidea, hain zuzen ere²². Zalantzak lausotuz (baina ez desagertuz) joan ziren 1996. urtetik aurrera, bi figurak bereizi egin zirelako (1996ko Espetxeen Erregelamenduen bitartez): erregimen itxia espetxe-sailkapeneko gradu bati dagokiola ezarri eta JBBFa, aldiz, datuen kontrolerako neurria dela ezarri²³.

Fitxategiak, berriz, datuen kontrolerako neurriak badira ere, hauen barnean sartzen diren presoei neurri batzuk ere aplikatzen zaizkie, neurri hauen aplikazioa Tratamendu Batzordeak zigortuen kasuan esleitutako sailkapen-mailaren eta tratamendu-programaren arabera izanik. Kartzelatuen sailkapena bost taldetan

¹⁹ 21/1996 Instrukzioa, abenduaren 16koa, JBBF delakoaren aplikazioa arautzen duena.

²⁰ CHAVES PEDRÓN, César, “Referencia a las Fuerzas y Cuerpos de Seguridad del Estado en la Legislación Penitenciaria”, CERVELLÓ DONDERIS, Vicenta eta ANTÓN BARBERÁ, Francisco (Zuzend.), *Estudios Sobre la Ciencia de la Seguridad. Policía y seguridad en el Estado de Derecho*, Tirant Lo Blanch, Valentzia, 2012, 197. or.

²¹ 21/1996 Instrukzioa, abenduaren 16koa, JBBF delakoaren aplikazioa arautzen duena.

²² Adituen artean aipagarriak dira, besteak beste: Tàlia González Collantes, Vicenta Cervelló Donderis, Santiago Mir Puig, César Chaves Pedrón, José Ángel Brandariz García, Julián Carlos Ríos Martín, Borja Mapelli Caffarena...

²³ CERVELLÓ DONDERIS, Vicenta, “Revisión de legalidad penitenciaria en la regulación del régimen cerrado y los FIES”, *La ley penal: revista de derecho penal, procesal y penitenciario*, 72. zk., 2010, 5-33. or.

banatzen da, bakoitzak ezaugarri propio eta bereizgarriak izanik: JBBF-1 ZK (Zuzeneko Kontrola), JBBF-2 DA (Delinkuentzia Antolatua), JBBF-3 BA (Banda Armatuak), JBBF-4 SI (Segurtasun-indarrak eta Espetxeetako Funtzionarioak) eta JBBF-5 EB (Ezaugarri Bereziak).

Jarraipen bereziko barneratuen taldeak eta horietan sartzeko beharrezko ezaugarriak, beraz, honako hauek dira²⁴:

- **JBBF-1 ZK (Zuzeneko Kontrola):** barne hartzen dira bereziki gatazkatsuak eta arriskutsuak diren barneratuak, erregimen-alterazio oso larrien protagonistak eta eragileak, funtzionarioen, agintarien, beste barneratu batzuen edo erakundetik kanpoko langileen bizitza edo osotasuna arriskuan jarri dutenak, zentro barruan nahiz kanpoan, lekualdaketetarako, eginbideetarako edo beste arrazoi batzuetarako irteerak direla eta.
- **JBBF-2 DA (Delinkuentzia Antolatua):** hemen sartzen dira erakunde edo talde kriminaletan egindako delituekin zerikusia duten barneratu guztiak (Zigor Kodeko 570 bis eta 570 ter, eta hurrengo artikuluetan zehaztutako kontzeptuen arabera), baita arriskugarritasun-potentzial handiko barneratuak ere, legez kanpoko elkarteekin duten loturagatik espetxeratuak izan badira.
- **JBBF-3 BA (Banda Armatuak):** talde honetan sartzen dira banda armatuei edo elementu terroristei lotuta dauden barneratu guztiak eta, Segurtasun Indarren txostenen bidez, talde horiei laguntzen dietenak.
- **JBBF-4 SI (Segurtasun-indarrak eta Espetxeetako Funtzionarioak):** talde profesional horietako kide diren edo izan diren barneratuak sartzen dira, barneratzean kautela jakin batzuk eskatzen diren kasuetan, Estatuko Segurtasun Indar eta Kidegoen Lege Organikoaren 8. artikuluan aurreikusitakoaren arabera.
- **JBBF-5 EB (Ezaugarri Bereziak):** kategoria honetan kriminologia edo espetxe ezaugarriak direla eta, segurtasun-arrazoiengatik jarraipen berezia behar duten presoek zenbait talde sartzen dira:
 - Gatazka, ihesaldi edo indarkeria larriko espetxe-historiala duten presoak.
 - Alarma sozial handia sortu duten pertsonen edo sexu-askatasunaren aurkako zein ustelkeriarekin zerikusia duten delitu larrien egileak.
 - Indarkeriazko talde edo erakundeei lotutako pertsonak.
 - Terrorismo islamistagatik prozesatu edo kondenaturik egon gabe, haien fanatismo erradikalagatik, ideia terroristekin kidetasuna izateagatik eta presio- edo erakarpen-taldeen lidergoa edo integrazioagatik nabarmentzen diren presoak.

²⁴ MARTÍNEZ MARTÍNEZ, Miguel Ángel, “5. Estrategias de control: medidas de seguridad penitenciaria”, ALONSO RIMO, Alberto; CUERDA ARNAU María Luisa; FERNÁNDEZ HERNÁNDEZ, Antonio (Zuzend.), *Terrorismo, sistema penal y derechos fundamentales*, Tirant lo Blanch, Valentzia, 2018, 443-444. or.

- Nazioarteko Zigor Auzitegiak kondenatutakoak edo banda terroristen edo beste erakunde kriminal batzuen aurkako justiziaren laguntzaileak.

Sailkapen-maila horrelakoa izanik, kartzelatuak ezarritako neurriak askotarikoak izan daitezke, besteak beste: egiten dituzten jardueretan etengabe behatzea eta kontrolatzea, hilero txostena bidaliz Informazioaren Kontrol eta Jarraipenerako Taldeari; gehienez ere bi hilean behin gelaxka-aldaketak egitea; gaueko errondak bi orduro egitea; ahal den heinean, kanpoko kontsultetara noiz joango diren ez jakinaraztea; barneko segurtasun-neurriak indartzea (miaketak, zenbaketak, errekiak... ugarituz), eta abar²⁵.

Nolanahi ere, arestian aipatu bezala, JBBFa datu-base gisa definitu arren, autore askoren iritziz ezkutuko espetze-erregimena baino ez da. Hain zuzen ere, honek askatasunaz gabetutako pertsonen arriskugarritasunaren arabera hauen oinarrizko eskubideak mugatzen dituzten neurriak ezartzen dituena²⁶.

Kontuan izan behar da ELOOK arriskugarritasun horri jada erreferentzia egiten diola, honek bere 10. artikuluan ezartzen baitu lehen gradua edo erregimen itxia muturreko arriskugarritasuna edo bizikidetzara araututa egokitzen ez diren presoak bideratuta dagoela. Hau da, Legeak jada aurreikusten du barneratuak espetxean duen portaeran, gainerako presoekin batera bizitzeko duen gaitasunean eta ingurunera egokitzeko gaitasunean oinarriturik zein izango den aplikatu beharreko erregimena. Bestetik, askatasunaz gabetutako pertsonen arriskugarritasuna egin dituzten delituen larritasunaren, delitu horiek egiteko indarkeriazko modalitatearen eta ezarritako zigorraren larritasunaren ondorio izan ohi da; epaileak jada kontuan hartu behar izan duena prozesu judizialean zehar²⁷.

Beraz, ez da guztiz zentzuzkoa arriskugarritasunaren arabera preso talde zehatz batzuei, aplikatzen zaion erregimenaz gain, bestelako trataera bat ematea, bestelako neurri batzuk aplikatuz eta kontrol ezberdina ezarri (Legeak ezartzen duenaz haratago). Azken finean, hura gainerako presoekiko bereizketa larria suposatuko luke, hori

²⁵ MARTÍNEZ MARTÍNEZ, Miguel Ángel, “5. Estrategias de control: medidas de seguridad penitenciaria”, ALONSO RIMO, Alberto; CUERDA ARNAU María Luisa; FERNÁNDEZ HERNÁNDEZ, Antonio (Zuzend.), *Terrorismo, sistema penal y derechos fundamentales*, Tirant lo Blanch, Valentzia, 2018, 445-446. or.

²⁶ Sailkapen-taldee dagokionez, fitxategiak presoak sailkatzeko momentuan hauen arriskugarritasunari begiratzen dio, egindako delituaren arabera talde batean edo bestean barneratuz, esaterako: JBBF-2k “arriskugarritasun-potentzial handiko barneratuak” aipatzen ditu, JBBF-5ak, besteak beste, “alarma sozial handia sortu duten pertsonen edo sexu-askatasunaren aurkako zein ustelkeriarekin zerikusia duten delitu larrien egileak” edo “haien fanatismo erradikalagatik, ideia terroristekin kidetasuna izateagatik eta preso- edo erakarpen-taldeen lidergoa edo integrazioagatik nabarmentzen diren presoak”.

²⁷ CERVELLÓ DONDERIS, Vicenta, “Los derechos sin libertad: el lenguaje de la imagen”, VIVES ANTÓN, Tomás Salvador.; CARBONELL MATEU, Juan Carlos; GONZÁLEZ CUSSAC, José Luis; ALONSO RIMO, Alberto; eta ROIG TORRES, Margarita (Koord.), *Crimenes y Castigos. Miradas al Derecho penal a través del arte y la cultura*, Tirant lo Blanch, Valentzia, 2014, 159. or.

bigarren zigor gisa definitu ahal izanik (CERVELLÓ DONDERISek adierazi bezala: kartzela kartzelaren barruan²⁸).

Era berean, JBBF-3ri dagokionez, sakabanatze- edo urruntze-politikarekin gertatzen den bezala, terrorismo-delituengatik kondenatutakoak JBBF delakoan sartzea da terrorismoaren arloko espetxe-politikaren beste elementu bereizgarrietako bat²⁹. Zalantzarria da pentsatzea kasu honetan ere fitxategi berezi horietan sartzeko arrazoa arriskugarritasuna edo bizikidetzara-arauetara egokitu ezin izatea dela.

Horren guztiaren oinarria fitxategien aplikazio automatikoan kokatzen da. Izan ere, neurri horien ezarpena automatikoa da, indiskriminatua. Ez dira preso bakoitzaren ezaugarri pertsonalak kontuan hartzen, talde zehatz horien ezaugarri komunak baizik, eta horren arabera neurri batzuk aplikatzen dira, interes orokorra presoaren beharren gainetik kokatuz.

Idea hori jada azpimarratu izan du Konstituzio Auzitegiak (aurrerantzean KA) hainbatetan, besteak beste 1993ko uztailaren 23ko Autoan, hurrengoa adieraziz³⁰: «*El régimen penitenciario implica la adopción de ciertas medidas para el conjunto de la población reclusa o para determinados colectivos por las especiales características de los mismos, que tienen una incidencia general en el normal funcionamiento de las instituciones penitenciarias y en el mantenimiento del necesario orden dentro de las mismas. No se trata, en efecto, de actuaciones particulares y aisladas de las autoridades penitenciarias respecto de un determinado recluso, sino que se manifiestan como parte integrante de un sistema de organización penitenciario que tiene el objeto de mantener el orden dentro de los establecimientos de este tipo*».

Horrekin batera, CERVELLÓ DONDERISek egindako kritika oinarri hartuz, fitxategien kontrako beste kritika batzuk ere aipagarriak dira³¹.

Batetik, JBBF-1 taldean (Zuzeneko Kontrolekoa) datu-fitxategi baten eta sailkapen-modalitate baten artean nahastea dagoela esan daiteke, erregimen itxiaren eta honen arteko antzekotasunak anitzak baitira. Urteetan zehar bi figura horien artean ezberdintzen saiatu izan da, adibide argiena 21/1996 Instrukzioa izanik, horren bitartez erregimen itxia, sail bereziak eta jarraipen bereziko fitxategiak bereizi nahi izan zen eta. Hala ere, ahaleginak alferrikakoak izan ziren, Auzitegi Gorenaren 2009ko Epaiaren ostean legezketasun printzipioa errespetatzeko hobekuntzak egin arren, bi figura horien arteko antzekotasunak jarraitu zutelako.

²⁸ CERVELLÓ DONDERIS, Vicenta, *Derecho Penitenciario*, 4. argitalpena, Tirant Lo Blanch, Valentzia 2016, 226. or.

²⁹ LÓPEZ LORCA, Beatriz, “Aspectos penitenciarios de los delitos de terrorismo”, ÁLVAREZ GARCÍA, Francisco Javier (Zuzend.), PÜSCHEL VENTURA, Arturo (Koord.), *Tratado de Derecho Penal Español Parte Especial. VI. Delitos contra el orden público (II)*, Tirant Lo Blanch, Valentzia, 2021, 397. or.

³⁰ KAA 262/1993, uztailaren 23koa, 3. OJ.

³¹ CERVELLÓ DONDERIS, Vicenta, *Derecho penitenciario*, 1. argitalpena, Tirant lo Blanch, Valentzia, 2001, 127. or.

Bestetik, ez dirudi oso zentzuzkoa JBBF-5 (Ezaugarri Bereziak) taldean sexu-askatasunaren aurkako delituengatik kondenatuak intsumisio-delituengatik kondenatutakoekin nahastea. Izan ere, delitu horien tipologia aztertuz gero komunean ezer gutxi duten delituak dira, komunean izan dezaketen bakarra, berriz ere, aurrez aipatutako arriskugarritasuna izanik. Beraz, esan daiteke JBBF-5 taldean sartzeko erabiltzen diren irizpideak nahiko zabalak eta zehaztugabeak direla. Esaterako, JBBF-1 taldean bereziki gatazkatsuak eta arriskutsuak diren barneratuak, eta erregimen-alterazio oso larrien protagonistak eta eragileak barneratzen dira, eta JBBF-5 taldean, berriz, gatazka, ihesaldi edo indarkeria larriko espetxe-historiala duten presoak. Hori oinarri hartuz, espetxean gatazkak izan dituzten presoak non sailkatuko dira: bereziki gatazkatsuak eta arriskutsuak diren barneratuen taldean (JBBF-1) edo gatazka espetxe-historiala dutenen taldean (JBBF-5)? Era berean, JBBF-5 taldean *alarma sozial handia sortu* duten delitu larrien egileak sartzeko direla ere aipatzen da, baina ez da aipatzen zeintzuk diren alarma sozial handia sortzen duten delitu horiek, horrek pertsona batzuekiko trataera diskriminatzailea eragin dezakeelarik.

Azkenik, fitxategien sailkapena egiterakoan irizpide indiskriminatuak erabiltzen dira, batzuetan egindako delitu-mota kontuan hartzen baita eta beste batzuetan, ordea, lanbide jakin bat izatea, hau izanik Estatuko Segurtasun Indar eta Kidegoen taldearen kasua (JBBF-4 FS). Hala, bi pertsonak delitu bera burutu arren, horietako bat Estatuko Segurtasun Indar eta Kidegoetako kidea bada (nahiz eta egindako delitua lanbidearekin zerikusirik ez izan), bakoitzari fitxategien barruan sailkapen-talde ezberdina aplikatuko zaio.

3.2. Fitxategien bilakaera juridikoa

Franco hil zenetik eta trantsizio politikoan zehar, espetxeetan gatazkak eta indarkeria nagusi izan ziren. Diktadorea hil ondoren, errege-indultu bat eman zen, eta horrek espetxe-irteera masiboak eragin zituen. Testuinguru horretan, preso politikoei amnistia eman zitzaion, preso komunak (*preso sozial* gisa ezagututakoak) kanpoan geratuz. Horren ondorioz, preso sozial horiek gainerako presoetatik baztertuak sentituz, antolatzen hasi ziren; protesta ugari (ez beti baketsuak) hasiera emanez: matxinadak, autolesioak, sabotajeak eta abar³².

80ko hamarkadan, matxinadek eta indarkeriazko ekintza kolektiboek aurrera jarraitu zuten. Gainera, 1980ko hamarkadaren amaieratik 1990eko hamarkadaren lehen urteetara bitartean, terrorismoagatik kondenatutako pertsona ugari zeuden espetxean, batez ere ETako eta GRAPoko kide zirenak. Hau guzti hau oinarri hartuz, garai hartako Espetxeetako Zuzendari Nagusiak Jarraipen Bereziko Barneratuen Fitxategiak sortu zituen, espetxean larrialdiaren eta salbuespenaren kulturaren sartzeari suposatu zuzena. BERGALLik kultura espezifikoa gisa definitu izan du hura, muturreko

³² GONZÁLEZ COLLANTES, Tàlia, “Los ficheros de internos de especial seguimiento: un ejemplo de la penetración de la cultura de emergencia y la excepcionalidad en el ámbito penitenciario”, *I Congreso Internacional de Seguridad, Justicia y Sistema Penal*, Valentzia, 2014.

gizarte-gatazka eta -tentsio bat agertzearen eta garatzearen ondorioz sortua, eta Zuzenbide Estatu baten berezko berme-printzipioak ahultzen dituen. Hauen sorrerak, gainera, atzerapausua suposatu zuen, fitxategi hauen bitartez berriz legitimatu baitziren espetxe inokuizatzaileak, jada abandonatuta uste zirenak, teorikoki, birsozializazioaren eta espetxe-tratamenduaren nazioarteko kodifikaziotik abiatuta, baina Espainiako kasuan, batez ere, 1978ko Konstituzioa onartu zenetik³³.

Garai hartako Espetxeen Erregelamenduak eta Espetxeen Lege Organiko Orokorrak espetxe-sailkapenaren graduak baino ez zituzten aurreikusten, espetxe-erregimen bakoitzaren baldintzak eta berezitasunak arautu gabe utziz. Horrek Espetxe Erakundeak erregimen bakoitzaren baldintzak instrukzio eta zirkularren bidez arautzera eraman zuen.

Horrela, bereziki arriskutsuak ziren preso-talde batzuen zaintza- eta kontrol-neurriak jasotzen zituzten hainbat zirkular agertzen hasi ziren. Hala ere, JBBF fitxategiei buruz hitz egitean kontuan izan behar da horren bilakaera juridikoa nahiko ezezaguna dela; izan ere, maila apalagoko arauak arautu izan dute beti, beharrezko argitalpen ofizialik gabe³⁴.

Eguno JBBFen jatorria 1989ko azaroaren 13ko Espetxeetako Zuzendaritzaren Zirkularrean dago, banda armatuetako eta elementu terroristetako presoen datuak biltzeari buruzkoan³⁵.

1989ko azaroko Zirkularretik hasita, anitzak izan dira fitxategiak arautu eta garatu izan dituzten zirkular eta instrukzioak. Besteak beste, horren ostean, 1991ko martxoaren 6ko Zirkularren bidez, JBBF-AB delakoa (erderazko *FIES-RE*), preso gatazkatsuenentzat eta arriskutsuenentzat, eta JBBF-NA delakoa (erderazko *FIES-NA*), narkotrafikatzaileentzat, sortu ziren. Horien sorrerak kolektibo jakin batzuei buruzko informazioa biltzen zuen datu-base espezifikoko bat sortzea ekarri zuen, zeinak beharrezko informazio guztia lortzeko ezinbestekoa zuen kontrol-mekanismo eta -praktika batzuk izatea, horrek subjektu horien bizi-baldintzak nabarmen okertzea ekarri.

Zirkular hori 1991ko maiatzaren 28ko Zirkularren bitartez osatu zen, non zaintza- eta kontrol-neurri bereziak hartu baitziren JBBF barneratuentzat (egunero txostenak eskatzen ziren egindako miaketei, barneratuen jarrerari, beste barneratuekin izandako harremani eta gertatutako gorabeherari buruz; asteroko gelaxka-aldaketak agintzen

³³ GONZÁLEZ COLLANTES, Tàlia, “Los ficheros de internos de especial seguimiento: un ejemplo de la penetración de la cultura de emergencia y la excepcionalidad en el ámbito penitenciario”, *I Congreso Internacional de Seguridad, Justicia y Sistema Penal*, Valentzia, 2014.

³⁴ BRANDARIZ GARCÍA, José Ángel, “Notas sobre el régimen penitenciario para penados considerados extremadamente peligrosos: Departamentos especiales y F.I.E.S.-1 (CD)”, *Estudios Penales y Criminológicos*, 135. zk., 2012, 23. or.

³⁵ LÓPEZ LORCA, Beatriz, “Aspectos penitenciarios de los delitos de terrorismo”, ÁLVAREZ GARCÍA, Francisco Javier (Zuzend.), PÜSCHEL VENTURA, Arturo (Koord.), *Tratado de Derecho Penal Español Parte Especial. VI. Delitos contra el orden público (II)*, Tirant Lo Blanch, Valentzia, 2021, 397. or.

ziren; gaueko begi-ikuskapenak egiten ziren, gutxienez, orduoro; ondoko gelaxketan JBBF barneraturik ezin zen egon; etab.).

Handik gutxira, 1991ko abuztuaren 2ko Zirkularren bidez, lehen gradu sailkatutako barneratuentzat tramendurako arau komunak ezarri ziren, Espetxeen Lege Organiko Orokorren 10. artikulua aplikatuz; zeinak bi fase bereizten zituen sailkapeneko lehen graduaren barruan. Hala, fasearen arabera barneratuek murriztapen gehiago izango zituzten, presoaren portaerak hobera egiten bazuen espetxeratzearen baldintzek ere hobera egingo zutelarik, batez ere bigarren fasera igarotzean³⁶.

Dena den, JBBF barneratuen eskubideen aurreko murrizketek ez zuten etenik izan. Hurrengo hilabetean, 1991ko irailaren 13ko Zirkularren eta 1991ko urriaren 2ko Zirkularren bidez murrizketa berri eta gogorragoak ezarri ziren eta.

Modu horretan, preso arriskutsuen jarraipen bereziarako esparrua izaten hasi zena, horiek izandako gorabehera guztiak erregistratzeko xede zuena (lekualdaketak, arrazoi berriak, sailkapena, zehapenak, komunikazioak, etab.), presoen eskubideen murrizketa neurrigabe gisa amaitu zen, EEk eta ELOOK arautzen zutena baino askoz haratago lehen gradua zirkular baten bidez garatuz. Horrenbestez, Legeak zehazten zuenaz kanpo sailkapen-gradu berri bat sortzen ari zen, eta, nolana ere, kartzela kartzelaren barruan³⁷; hots, segurtasun-neurriak ez ezik, bi fasetan banatutako bizi-erregimena ezarri zen³⁸.

1993ko urrian, berriz, fitxategien legezkotasuna zalantzan jarri zen Logroñoeko espetxeko bi espetxeratuk Konstituzio Auzitegiaren aurrean 1991ko abuztuaren 2ko Zirkularren aurkako babes errekurtoa jarri zutenean (errekurtoaren oinarria bi barneratuek haien bizi-erregimenaren aplikazioan jasandako ustezko gehiegikeriak izanik).

Honen aurrean, Auzitegiak, irailaren 15eko 241/1994 Autoan, bertan behera utzi zituen aipatutako Zirkularrean aurreikusitako neurriak aplikatzea ahalbidetu zuten akordioa eta erabaki judizialak. KAK ebatzi zuenaren arabera, Zirkularrak ezarritako tratamenduak askatasunaz gabetzeko zigorren pean zeuden gizabanakoen mugimendu- eta komunikazio-aukeretan zuzenean eragiten zuen, horiekiko gabetzea itzulezina izanik. Gainera, akordioa eta erabaki judizialak bertan behera utzi izanak errekurtoa jarri zutenei bakarrik eragiten zien arren, horrek atea ireki zuen espetxe-agintaritzak berak edo, halakorik ezean, Espetxe-zaintzako Epaileak, betiere barneratuak dagokion

³⁶ GONZÁLEZ COLLANTES, Tàlia, “Los ficheros de internos de especial seguimiento: un ejemplo de la penetración de la cultura de emergencia y la excepcionalidad en el ámbito penitenciario”, *I Congreso Internacional de Seguridad, Justicia y Sistema Penal*, Valentzia, 2014.

³⁷ CERVELLÓ DONDERIS, Vicenta, *Derecho Penitenciario*, 4. argitalpena, Tirant Lo Blanch, Valentzia 2016, 226. or.

³⁸ CHAVES PEDRÓN, César, “Referencia a las Fuerzas y Cuerpos de Seguridad del Estado en la Legislación Penitenciaria”, CERVELLÓ DONDERIS, Vicenta eta ANTÓN BARBERÁ, Francisco (Zuzend.), *Estudios Sobre la Ciencia de la Seguridad. Policía y seguridad en el Estado de Derecho*, Tirant Lo Blanch, Valentzia, 2012, 198. or.

errekurtsoa aurkezten bazuen, bertan behera utz zitzaten JBBF presoei aplikatzen zitzaizkien tratamendu-neurri murriztaileak³⁹.

Babes-errekurtso hori jartzeak eragin handia izan zuen Espainiako marko juridikoan, bereziki, KAren uztailaren 8ko 119/96 Epaian egon zen boto partikularra dela eta, bertan adierazi baitzen lehen graduak baimendutako askatasun-murrizketa ez zegoela berariaz jasota legean⁴⁰, azalduz, zigortuei oinarritzko eskubideak mugatzeko beharrezkoa zela kondena-epaian, zigorraren zentzuan eta Espetxe-legean hura berariaz aurreikusita egotea⁴¹.

Gauzak horrela, erregimen itxiaren bi modalitateak arautzeko, Espetxeetako Zuzendaritza Nagusiak, Espetxeetako Erregelamendu berria onartu arte itxaron gabe, sail berezietako eta erregimen itxiko arauak argi eta garbi bereizi zituen 1995eko otsailaren 28ko Zirkularren bidez. Honetan, sail bereziaren (A modalitate deitutakoa, barneratuei bereziki zorrotza zen bizi-erregimena aurreikusten zuena) eta erregimen itxiaren (B modalitatea) arteko bereizketa argitu zen, baita lehenengo graduarekin nahasketa sortzen zuten eta JBBFaren nondik norakoak arautzen zituzten aurreko zirkular guztiak eraginik gabe utzi ere.

Otsailaren 9ko 190/1996 Errege Dekretua, Espetxeen Erregelamendua onartzen duena, indarrean sartu zenean 1995ko Zirkularrean araututako edukia abenduaren 16ko 21/1996 Instrukzioak arautua izatera pasa zen, aurrekoa efekturik gabe utziz. Modu horretan, Espetxeen Erregelamendu berriaren laugarren xedapen iragankorrean xedatutakoa bete zen, zeinetan administrazio-araudia bateratzeko eta harmonizatzeo beharra aipatzen zen⁴². Gainera, erregelemandu berri horren 91. artikuluan ezarri zen erregimen itxia, zentzu hertsian, beste bi mailetara egokitu gabe agertzen zirenentzat bideratuta egongo zela, eta sail bereziak, aldiz, muturreko arriskugarritasuna agerian uzten zuten erregimentu-aldaketa oso larriak egin zituztenentzat. Bestalde, 6. artikuluan datu pertsonalen fitxategien aukera jaso zen.

Une honetatik aurrera, erregimen itxiko bi bizi-modalitateen arteko arauzko aldea argitu zen. Sail berezietan barneratuei bereziki zorrotza zen bizi-erregimena aplikatu zitzaien: gutxienez 3 orduko patioa, jardueretarako ere 3 ordu, patioan bakarrik bi barneratu egon zitezkeen batera eta jardueretan bost bakarrik, eta egunero miaketak eta erregistroak

³⁹ GONZÁLEZ COLLANTES, Tàlia, “Los ficheros de internos de especial seguimiento: un ejemplo de la penetración de la cultura de emergencia y la excepcionalidad en el ámbito penitenciario”, *I Congreso Internacional de Seguridad, Justicia y Sistema Penal*, Valentzia, 2014.

⁴⁰ CERVELLÓ DONDERIS, Vicenta, *Derecho Penitenciario*, 4. argitalpena, Tirant Lo Blanch, Valentzia 2016, 227. or.

⁴¹ GUIASOLA LERMA, Cristina, “Horas de luz: régimen penitenciario cerrado y política criminal de emergencia”, VIVES ANTÓN, Tomás Salvador.; CARBONELL MATEU, Juan Carlos; GONZÁLEZ CUSSAC, José Luis; ALONSO RIMO, Alberto; eta ROIG TORRES, Margarita (Koord.), *Crímenes y Castigos. Miradas al Derecho penal a través del arte y la cultura*, Tirant lo Blanch, Valentzia, 2014, 465. or.

⁴² GONZÁLEZ COLLANTES, Tàlia, “Los ficheros de internos de especial seguimiento: un ejemplo de la penetración de la cultura de emergencia y la excepcionalidad en el ámbito penitenciario”, *I Congreso Internacional de Seguridad, Justicia y Sistema Penal*, Valentzia, 2014.

egingo zitzaizkien. Bigarren modalitate horretan, erregimen itxian, aurrekoan bezain zorrotzak ez ziren zenbait neurri esleitu zitzairen: 4 orduko patioa, jardueretarako 3 ordu eta batera egon zitezkeen barneratuak bost ziren⁴³.

Erregelamenduak, beraz, bi bizi-modalitateen arteko bereizketa argia egiten zuen, 21/1996 Instrukzioak, berriz, aurreko zirkularrek izandako arazo berberak jaso zituen: batetik, ELOOn eta EEn aurreikusitakoaz bestelako bi modalitateetako bizi-erregimena ezartzen jarraitu zuen; bigarrenik, erregimen itxiaren eta sail berezien artean kointzidentzia gehiegi zeuden oraindik; eta azkenik, aurreikuspen horiek eta fitxategiei buruzko arauak batera arautzen zituen⁴⁴.

3.2.1. Jarraipen Bereziko Barneratuen Fitxategien Abiapuntua

21/1996 Instrukzioaren bitartez, abenduaren 16koa, sail berezietara bideratutako barneratuen eta zentro edo sail itxietara bideratutakoen arteko bereizketa egiten saiatu zen, errealitatea bestelakoa izan arren.

Momentu honetatik aurrera zehaztu zen fitxategi hauen helburua presoen talde jakin batzuei buruzko informazioa biltzea zela, egindako delituagatik zein espetxean izandako ibilbideagatik, talde horien gaineko kontrol egokia egiteko eta espetxeetako gorabeherari aurreratzeko; beti ere, hartutako kontrol-mekanismoak Konstituzioarekin eta espetxe-legeriarekin formalki bat etorritz. Hala ere, jasotzen diren datu batzuek ez zuten lotura hertsirik helburu horiekin. Hala nola, batetik, erregimenaren barruan jazandako edo jazo zitezkeen gorabeherak batzen ziren. Datu horiek susmo huts batean oinarrituta biltzeak errugabetasun-presuntzioaren printzipioa urratzen zuten, baldin eta susmo horiek eskubideak murriztea eragiten bazuten⁴⁵. Bestetik, irteteko baimenen eskaerak ere batzen ziren. Datu horiek zentrotik kanpoko gertaerei eragiten zieten; kontuan izanik, gainera, fitxategi horietako batean sartuta egotea, talde teknikoak aztertu aurretik ere, baimenak emateko oztopo izan ohi zela (txostenean arrazoi hori jaso ez arren)⁴⁶.

Era berean, fitxategien bitartez kartzelatuen sailkapena bost taldetan banatu zen, bakoitzak ezaugarri propio eta bereizgarriak izanik: JBBF-1 ZK, JBBF-2 NA⁴⁷, JBBF-3 BA, JBBF-4 SI⁴⁸ eta JBBF-5 EB. Honen bitartez, beste behin ere, Instrukzioak berak

⁴³ CERVELLÓ DONDERIS, Vicenta, *Derecho Penitenciario*, 4. argitalpena, Tirant Lo Blanch, Valentzia 2016, 227-228. or

⁴⁴ GONZÁLEZ COLLANTES, Tàlia, “Los ficheros de internos de especial seguimiento: un ejemplo de la penetración de la cultura de emergencia y la excepcionalidad en el ámbito penitenciario”, *I Congreso Internacional de Seguridad, Justicia y Sistema Penal*, Valentzia, 2014.

⁴⁵ RÍOS MARTÍN, Julián Carlos, “Los ficheros de internos de especial seguimiento (FIES)”, *Cuadernos de Derecho Penitenciario*, 3. zk., 1998, 6. or.

⁴⁶ CERVELLÓ DONDERIS, Vicenta, “Revisión de legalidad penitenciaria en la regulación del régimen cerrado y los FIES”, *La ley penal: revista de derecho penal, procesal y penitenciario*, 72. zk, 2010, 18. or.

⁴⁷ 6/2006 Instrukzioaren bidez, otsailaren 22koa, “JBBF-2 NA (Narkotrafikatzaileak)” “JBBF-2 DA (Delinkuentzia Antolatua)” izatera pasa zen.

⁴⁸ JBBF-4 delakoari lotuta, 1995eko uztailaren 12ko Autoan, Madrilgo 3 zenbakiko Probintzia Auzitegiak adierazi zuen sailkapen-talde horrek desberdintasun argia zekarrela gainerako barneratuekiko, lanbide jakin bateko kide izatean oinarritzen zelako [GONZÁLEZ COLLANTES, Tàlia, “Los ficheros de internos de especial seguimiento: un ejemplo de la penetración de la cultura de emergencia y la

adierazi zuen JBBF sistema ez zela ezartzen bertan barneratutako presoen tratamendu-premien edo berreziketa-beharren arabera, espetxeko ordena- eta segurtasun-interesen arabera baizik (zigortuek ustez egindako delitu-moten arabera zehaztuta, prebentzio-delituen kasuan), presoak atxikitzea bermatze aldera⁴⁹.

Fitxategian barneratzea edo bertatik ateratzea Espetxeetako Zuzendaritza Nagusiaren erabakiz egingo zen, ofizios edo zentroek proposatuta. Gainera, Zirkularrak, oro har, datu jakin batzuk Espetxe Kudeaketako Zuzendariordetza Nagusiari jakinaraztea eskatzen zuen, hala nola, espetxetik ateratzeko edo baldintzapeko askatasunerako proposamenak...

Bestalde, bereziki arriskutsutzat eta gatazkatsutzat jotzen ziren zenbait preso kontrolatzeko neurriak areagotu ziren (besteak beste, aldizkako begi-ikuskapenak, aldizkako gaueko txandak, gelaxken aldizkako aldaketak, egunero erabiltzeko gutxieneko arropak eta tresnak edukitzea, eta abar). Komunikazioei dagokienez, presoek komunikazioetan esku hartu ahal izango zela ere ezarri zen, segurtasun-arrazoietan oinarrituta. Idatzizko komunikazioen kasuan, horiek astero segurtasun-koordinaziora bidali behar ziren, eta horiek onartu ere (onarpena 15 egunera arte atzeratu ahal izanik). Ahozko komunikazioei dagokienez, horiek grabatu egingo zirela ebatzi zen, eta Espetxeetako Zuzendaritza Nagusiari igorri. Lokutorio bidez egindako komunikazioak egiteko baimena aldeztu aurretik eskatu behar zen, eta onarpena hilabete eta erdi eta bi hilabete bitartean jaso⁵⁰.

3.2.2. Oztopoak gainditzeko arauketa berria

1996ko Instrukzioaren ostean, fitxategien eta horiek arautzen zuen araudiaren kontrako kritikak areagotu ziren. Kritika gehienak zirkularretan erregimen itxia legeztarritakoa baino askoz modu zabalagoan garatzen zelako egin ziren, horien bitartez sailkapen-maila berria sortzen ari baitzen.

Gainera, Probintzia Auzitegien zenbait ebazpenetan zalantzan jarri izan zen instrukzio horren legezkotasuna, bi arrazoi nagusirengatik: batetik, legezkotasun-printzipioa urratzeagatik, lege-testuetan jasota ez zegoen bizi-erregimena ezartzeagatik; eta, bestetik, presoek nortasunaren araberrako tratamendu orokor eta ez-individualizatua ezartzeagatik⁵¹.

Bien bitartean, 2001ean, “*Madres Unidas contra la Droga de Madrid*” elkarteak administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkeztu zuen Auzitegi Nazionalen

excepcionalidad en el ámbito penitenciario”, *I Congreso Internacional de Seguridad, Justicia y Sistema Penal*, Valentzia, 2014.].

⁴⁹ BRANDARIZ GARCÍA, José Ángel, “Notas sobre el régimen penitenciario para penados considerados extremadamente peligrosos: Departamentos especiales y F.I.E.S.-I (CD)”, *Estudios Penales y Criminológicos*, 135. zk., 2012, 26. or.

⁵⁰ *Ibidem*. 30. or.

⁵¹ CERVELLÓ DONDERIS, Vicenta, “Revisión de legalidad penitenciaria en la regulación del régimen cerrado y los FIES”, *La ley penal: revista de derecho penal, procesal y penitenciario*, 72. zk., 2010, 19. or.

(aurrerantzean AN), Espetxeetako Zuzendaritza Nagusiaren abenduaren 16ko 21/1996 Instrukzioko "Oso gatazkatsuak eta/edo moldatzen ez diren barneratuei buruzko segurtasun-, kontrol- eta prebentzio-arauak" izenburuko lehen paragrafoa deuseztat jotzeko epaia emateko eskatuz. Auzitegiak, 2004ko martxoaren 1eko Epaia bidez, instrukzio horren B.1.A.13 azpiatalarekiko deuseztasuna deklaratu zuen (JBBF preso eta haien senide eta lagun arteko komunikazioei buruzkoa)⁵²:

«QUINTO.- El mismo apartado B.1.A 13, señala que "Respecto de las visitas de convivencia en locales o recintos adecuados, su duración máxima será de 3 horas". [...] En el presente caso, nos hallamos ante una disposición que restringe la duración máxima de seis horas que el Reglamento Penitenciario prevé para las llamadas visitas de convivencia, fijando dicha duración máxima en tres horas, sin argumentación ni justificación ninguna para ello. En definitiva, se limita de manera injustificada (e innecesariamente dolorosa para el interno), y sin ninguna motivación, la duración temporal de tal derecho a las visitas de convivencia. Esta Sala no acierta a comprender la razón de dicha restricción, no obstante el carácter de especialmente peligrosos y/o inadaptados de los reclusos a los que se aplica la Instrucción, dado que dichas visitas lo son del cónyuge o conviviente y de los hijos menores de diez años, personas cuya negativa influencia sobre el preso, o sobre la seguridad u orden del establecimiento no parece evidente. Consideramos, por ello, que tal disposición constituye una intromisión ilegítima en la intimidad familiar del interno, carente de razonabilidad, por lo que dicho inciso del referido apartado B.1.A 13 de la instrucción 21/1996, efectivamente es nulo de pleno derecho por cuanto contraviene, sin justificación ni motivación alguna, lo preceptuado en el artículo 45.6 del Real Decreto 190/1996, en relación con el artículo 51.1 de la Ley General Penitenciaria».

Gainerako guztian Auzitegiak instrukzioa berretsi zuen. Izan ere, Auzitegiak adierazi zuen JBBF delakoak aurreikusitako neurriak segurtasun, tratamendu eta establezimenduen ordena ona mantentzeko justifikatuak zirela; adieraziz, gainera, horiek ez zirela Konstituzioaren aurkakoak, ezta birsozializazio-printzipioaren aurkakoak ere.

Hortik aurrera, 21/1996 Instrukzioa indargabetu eta segurtasun arloan jarduteko protokoloari buruzko otsailaren 22ko 6/2006 Instrukzioak, espetxeetako segurtasunaren alorrean jarduteko protokoloari buruzkoak, ordezkatu zuen. Instrukzio honen bidez, JBBF delakoa indarrean zegoen ordenamendu juridikoarekin guztiz bat zetorrela baieztatu zen⁵³. Honen bitartez, aldaketa azpimarragarriren bat sartu zen, fitxategiak berregituratu egin baitziren alderdi kriminologiko garrantzitsuak sartzeko, hala nola, fanatismo erlijioso edo arrazakeria, sexu-askatasunaren aurkako delituen berriazko erreferentzia zuzendu zen delitu oso larriengatik, eta jada indarrean ez zeuden

⁵² ANE 1415/2004, martxoaren 1ekoa.

⁵³ 6/2006 Instrukzioa, otsailaren 22koa, espetxeetako segurtasunaren alorrean jarduteko protokoloari buruzkoa.

aipamenak ezabatu ziren, besteak beste, intsumisoena⁵⁴. Gainera, JBBF-2 NA delakoa (Narkotrafikatzaileak), JBBF-2 DA (Delinkuentzia Antolatua) izatera pasa zen, bere benetako edukiari hobeto egokitzen zitzaiolako. Hala ere, 1996ko Instrukzioak, ia osorik, indarrean jarraitu zuen.

Nolanahi ere, *Madres Unidas* elkarteak hori nahikoa ez zela ikusita, Auzitegi Gorenean kasazio-errekurtsoa aurkeztu zuen, Auzitegiak bidezkoetsi zuena.

3.2.3. Fitxategien legezkotasuna bidegurutzean: Auzitegi Gorenaren epaia

Kasazio-errekurtso horren bitartez, Elkarteak salatu egin zuen errekurritutako epaiak (ANkoak), batetik, EKren 17.1 eta 25.2 artikulua urratzen zituela, lege-erreserbaren printzipioa ez errespetatzeagatik; eta, bestetik, EKren 9.3 eta 103.1 artikulua ere urratzen zituela, instantziako salak ez baitzuen kontuan hartu Administrazioak bere burua antolatzeko duen ahala honako printzipio hauek mugatzen dutela: arauen arteko hierarkiaren printzipioa, arbitrariotasunaren debekua eta Legeari eta Zuzenbideari bete-betean men egitea. Izan ere, *«el apartado primero de la Instrucción impugnada 21/1996, de 16 de diciembre, de la Dirección General de Instituciones Penitenciarias va más allá del mandato de la Disposición Transitoria Cuarta del Reglamento Penitenciario, aprobado por Real Decreto 190/1996, de 9 de febrero, de refundir, armonizar y adecuar a lo establecido en dicho Reglamento las circulares, instrucciones y órdenes de servicio dictadas con anterioridad»*.

Auziaren koska, beraz, Espetxe Administrazioaren zirkular edo instrukzio bat gatazkatsutzat eta/edo moldatugabetzat jotzen dituen presoek eskubide eta betebeharren araubide orokor bat ezartzeko tresna juridiko egokia den ala ez aztertzea zen.

ANk, errekurritutako epaian, ez zuen ukatzen presoek mugak ezartzean Espetxeen Zuzendaritza Nagusiaren Instrukzioaren aurkaratutako atalak barneratuen eskubideei eragiten zienik; aitzitik, adierazten zuen horiek ez zirela Espetxeen Legean eta Erregelamenduan ezarritakoaren aurkakoak, bizikidetzabizita deiturikoei dagokienez izan ezik. Auzitegi Gorenaren (aurrerantzean AG) ustez, ordea, zirkular edo instrukzio horiek, arau juridikoen edo xedapen orokorren izaerarik eta bermerik ez zuten, ez ziren bide egokia espetxeetako presoek eskubideak eta betebeharrak arautzeko⁵⁵:

«Nosotros, en contra del parecer de la Sala sentenciadora y de los informes obrantes en el expediente administrativo, consideramos que esas circulares o instrucciones, al carecer de la naturaleza y de las garantías de las normas jurídicas o disposiciones de carácter general, no son medio idóneo para regular derechos y deberes de los internos en los centros penitenciarios».

⁵⁴ GONZÁLEZ COLLANTES, Tàlia, “Los ficheros de internos de especial seguimiento: un ejemplo de la penetración de la cultura de emergencia y la excepcionalidad en el ámbito penitenciario”, *I Congreso Internacional de Seguridad, Justicia y Sistema Penal*, Valentzia, 2014.

⁵⁵ AGE 2555/2009, martxoaren 17koa, 1. OJ.

Hori oinarri hartuz, 2009ko martxoaren 17ko Epaiaren bidez, Auzitegiak erabat deuseztat jo zuen aipatutako Instrukzioaren lehenengo paragrafoa ("*Oso gatazkatsuak eta/edo moldatzen ez diren barneratuei buruzko segurtasun-, kontrol- eta prebentzio-arauak*" izenburuduna), ulertzen baitzuen arau hura ez zela egokia presoan eskubideak eta betebeharrak arautzeko, administrazio- edo antolaketa-erregelamenduak deiturikoen zeregina eta helburua gainditzen zuelako, legeari eta haren erregelamendu betearazleei erreserbatutako eremuan sartzen baitzen; hots, lege-erreserbaren eta arau-hierarkiaren printzipioak urratzen zituelako⁵⁶.

«SEGUNDO.- [...] El apartado primero de la Instrucción 21/1996, de 16 de diciembre, de la Dirección General de Instituciones Penitenciarias, contiene normas de carácter general sobre seguridad, control y prevención de incidentes relativos a internos muy conflictivos y/o inadaptados, que afectan a los derechos y deberes de éstos, de manera que se excede del cometido y finalidad de los denominados "reglamentos administrativos o de organización" para adentrarse en el ámbito reservado a la ley y a sus reglamentos ejecutivos, rodeados estos de unas garantías en su elaboración y requisitos de publicidad de los que aquélla carece, razón por la que la sentencia recurrida conculca los principios recogidos en los preceptos constitucionales invocados al articular ambos motivos de casación».

Epaiak aldaketa nabaria ekarri zuen jurisprudentzia mailan. Izan ere, urteetan zehar JBBF erregimenaren inguruko kritika eta eztabaiden ostean, epai horrek 21/96 Instrukzioa baliogabetzat jo zuen. Horren bitartez adierazi zen zirkularrak edo instrukzioak ez zirela bide egokia barneratuen eskubideak eta betebeharrak arautzeko, eta argi utzi zen horrelako arauen bidez barne-arauak baino ezin zirela arautu, eta ez oinarritzko eskubideak mugatu (soilik legearen esku geratuz ahalmen hura).

3.2.4. Azken eraldaketak arauzko baldintzak betetzeko

Auzitegi Gorenaren epaiak ezarritako jurisprudentzia-aldaketak Espetxe Erregelamenduaren aldaketa eta 12/2011 Instrukzio berriaren sorrera eragin zuen; biak JBBF fitxategiari buruzko araudia Auzitegi Gorenak ezarritako estandar berri eta zorrotzetara egokitzeko ahaleginean egindakoak izanik⁵⁷. 419/2011 Errege Dekretuaren zioen azalpenean agertzen den bezala, EEren aldaketa justifikatzen zuen arrazoietakoa bat JBBF delakoei arauzko estaldura emateko beharra izan zen, horien legitimitatea partzialki zalantzan jarri baitzen momentu horretara arte. Horren bitartez, bereziki, bermatu zen fitxategiek ez zutela ekarriko erregelamendu bidez zehaztutako bizi-sistema ez den beste bat finkatzea.

Gainera, oso arriskutsuak izan daitezkeen presoei lotuta, kontrol indartuko neurriak hartu behar izatearen beharra azpimarratu egiten da. Hala, arrisku eta segurtasun-mehatxu horiei aurre egiteko, aurreikusten da espetxe-administrazioak

⁵⁶ AGE 2555/2009, martxoaren 17koa, 2. OJ.

⁵⁷ SOLAR CALVO, Puerto, *El sistema penitenciario español en la encrucijada: una lectura penitenciaria de las últimas reformas penales*, AGENCIA ESTATAL BOLETÍN OFICIAL DEL ESTADO, Madril, 2019, 169. or.

kontrol handiagoa behar duten presoen profilak ezarri ahal izango dituela (beti ere, ezarri ahal izango diren segurtasun-neurriak premia- eta proportzionaltasun-printzipioen arabera arautuz, eta presoen duintasuna eta oinarrizko eskubideen errespetupean hartuz).

Erregelamendu aldaketak, besteak beste, 6. artikulua aldaketa eragin zuen, 2. paragrafoan aldaketa txikia egiteaz gain, 4. paragrafo bat gehituz. Paragrafo berri horren bitartez ezarri zen Espetxeetako Administrazioak presoen fitxategiak ezarri ahal izango zituela, establezimenduaren segurtasuna eta ordena nahiz presoen osotasuna bermatzeko xedez. Dena den, argi adierazi zen fitxategi horretan sartzeak ez zuela, inola ere, erregelamenduz dagokion bizitza-erregimena ez den beste bat ekarriko.

Bestetik, «Barne Segurtasuneko Neurriei» buruzko Erregelamenduaren 65. artikulua ere aldatu zen, lehenengo atala eraldatuz eta bigarren eta hirugarren atalak gehituz. Lehenengo paragrafo horretan establezimenduen barne-segurtasuna bermatzera bideratutako jarduerak aurreikusi ziren, bigarren paragrafoaren arabera, neurrien intentsitatea neurri horiek aplikatuko zaizkien presoen arriskugarritasun potentzialera egokituko dela ezarriz. Gainera, horretarako, Espetxe Administrazioak funtzionarioen talde espezializatuak eratu ahal izango ditu ere.

419/2011 Errege Dekretuaren bidez 190/1996 Espetxe Erregelamenduaren azken eguneratzea egin zen, hau izanik, beraz, gaur egun indarrean dagoen erregelamenduzko araudia. Hala ere, egindako aldaketa horiek kritikak eragiten dituzte oraindik ere.

Badirudi araudiaren emaitza ez dela oso egokia izan autore batzuentzat. Izan ere, EEren 6.4 eta 65.2 artikulua berriek 12/2011 Instrukzioa erregelamendu bidez arautua egotea eragin zuten arren, Auzitegi Gorenak ondorioztatu zuen bezala, horren erregulazioa lege-mailakoa izan beharko litzateke. Alegia, MAPELLI CAFFARENaren iritziz, «zigortuaren oinarrizko eskubideak arriskuan jar ditzaketen arauak ELOOn zehatz-mehatz jaso behar dira, eta ez EEn», egin zen bezala. Are gehiago, SOLAR CALVOK adierazten duen bezala, «JBBF fitxategien existentzia beharrezkoa bada ere (gaur egun espetxeratuen artean dauden profilak kontuan hartuta), horrek ez du eragozten arauketa egiteko teknika desegokia nabarmentzea»; Espetxeen Erregelamendua eta instrukzioak ez baitira nahikoak JBBF fitxategiak beren kabuz ezartzeko⁵⁸.

Hala eta guztiz ere, CERVELLÓ DONDERISEk zoriondu zuen AGren 2009ko Epaiak behartu zuen aurrerapena. Haren ustetan, horrek espetxe-esparruan lege-erreserba indartzen du, gutxienez, JBBFaren erregulazioa Espetxeen Erregistrora lekualdatzea lortuz; hori nahikoa ez bada ere, legezkotasun-printzipioaren eskakizuna hobetzeko urrats handia izanik⁵⁹.

⁵⁸ SOLAR CALVO, Puerto, *El sistema penitenciario español en la encrucijada: una lectura penitenciaria de las últimas reformas penales*, AGENCIA ESTATAL BOLETÍN OFICIAL DEL ESTADO, Madril, 2019, 169-171. or.

⁵⁹ *Ibidem*. 169. or.

4. FITXATEGIEK ESPETXERATUEN OINARRIZKO ESKUBIDEETAN SORTUTAKO MUGAK

Delituaren bi ondorio juridiko garrantzitsuenak zigorra eta segurtasun-neurria dira. Lehenengoaren helburua delitua burutu duenari zigor bat ezartzea da, egindakoa gaitzesten dela adierazteko. Bigarrenaren helburua, aldiz, bestelako deliturik berriro ere ez burutzea da, egilearen izaera edo egoera berezia dela eta.

Zigor ooren zeregina organo jurisdikzionalak delitu-egitate baten erantzulari legeak ezarritako ondasun juridiko bat kentzean oinarritzen da⁶⁰. Hala ere, teoria asko daude zigorra betetzeari edo exekuzioari buruz.

Espaniar sistema juridikoari dagokionez, 70eko hamarkadaren amaieran, berreziketaren eta birgizarteratzearen printzipioa ordenamendu juridikoan sartu zen, alde batetik, EKko 25.2 artikuluan jasoz, oinarrizko eskubideen eta askatasun publikoen artean, eta, bestetik, ELOOren 1. artikuluan jasoz, hori izanik espetxe-zuzenbide osoaren oinarrizko printzipio hartzearen arrazoia.

Azken hamarkadetan, zigor-arloko doktrinak askatasunaz gabetzeko zigor eta neurrien orientazio konstituzionalaren izaera zein izan behar zuen eztabaidatu izan du. Doktrina zientifikoaren zati handi batek Konstituzioak finkatutako bideari jarraitu zion, zeinak ukatu egiten baitzuen oinarrizko eskubidea zenik, konstituziogileak legegileari zigor-arloko eta espetxe-arloko politika bideratzeko agindua baizik (KAren 2/1987 Autoa, urtarrilaren 21ekoa, KAren 2/1987 Epaia, KAren 150/91 Epaia). Konstituzio Auzitegiaren arabera, 25.2 artikulua zigorrak betearazteko sistema berreziketara eta birgizarteratzera *bideratzera* baino ez du behartzen, zigor askatasun-gabetzaileen helburuetako bat den aldetik. Baina, horrek ez du esan nahi gizarteratzea denik zigor horren helburu bakarra. Beraz, espetxe-zigorrak helburu horiek lortuko ez balitu ere, ez litzateke printzipio hori urratuko, bai, ordea, helburu horiek lortzea eragotziko lukeen agindurik balego.

Hala ere, doktrinaren beste zati batek uste duenaren arabera, Espainiako Konstituzioaren 25.2. artikulua giza duintasunaren eta nortasunaren garapen askearen printzipioaren sorburu gisa interpretatu behar den oinarrizko eskubidea da. Gainera, hauen ustetan, artikulua politika kriminaleko irizpide bat jasotzen du betearazpen-fasetik kanpo, legegileari debekatuz aldarrikatzen den helburuarekin erabat bateraezinak diren zigorrak ezartzea⁶¹.

Hemen, beraz, doktrinaren arteko eztabaida alde batera utziz, KAK markatutako irizpideari jarraituko diogu, hots, 25.2 artikulua zigorrak betearazteko sistema

⁶⁰ CERVELLÓ DONDERIS, Vicenta, *Derecho Penitenciario*, 4. argitalpena, Tirant Lo Blanch, Valentzia 2016, 47. or

⁶¹ GUIASOLA LERMA, Cristina, “Horas de luz: régimen penitenciario cerrado y política criminal de emergencia”, VIVES ANTÓN, Tomás Salvador.; CARBONELL MATEU, Juan Carlos; GONZÁLEZ CUSSAC, José Luis; ALONSO RIMO, Alberto; eta ROIG TORRES, Margarita (Koord.), *Crímenes y Castigos. Miradas al Derecho penal a través del arte y la cultura*, Tirant lo Blanch, Valentzia, 2014, 470-471. or.

bideratzeratzeko tresna baino ez izateari. Gakoa, ordea, Auzitegiak azpimarratutako bigarren ideia batean kokatuko dugu: 25.2. artikulua aurreikusitako printzipioa zigor askatasun-gabetzaileen helburuetako bat bada ere, berreziketa eta birgizarteratzea lortzea eragozten duten agindurik balego printzipioa urratuko litzatekeela.

Bestalde, ELOOren 1. artikulua arabera, lege horretan araututako espetxeen helburu nagusia askatasunaz gabetzeko zigor eta neurri penalak ezarri zaizkien berreziketa eta birgizarteratzea da⁶², bai eta atxilotuak, presoak eta zigortuak atxikitzea eta zaintzea ere. Halaber, bere esku geratuko da barneratuentzat eta liberatuentzat sorospen- eta laguntza-lanak egitea.

1993ko urrian JBBFen legezketasuna zalantzan jarri zen Logroñoko espetxeko bi espetxeraturik Konstituzio Auzitegian 1991ko abuztuaren 2ko Zirkularraren aurkako babes errekurtsioa aurkeztu zutenean (bi barneratuek haien bizi-erregimenaren aplikazioan jasandako gehiegikeriengatik). Horren aurrean, KAK, uztailearen 8ko 119/96 Epaian, adierazi zuen presoek alegatutako murrizketa guztiak onartezinak zirela eta berretsi egin zuen, besteak beste, “atxilotuak, presoak eta zigortuak atxikitzeko eta zaintzeko” instituzioek zuten helburu nagusia (ELOO 1. art.), hots, “zentroen segurtasuna eta erregimen-ordena egokia bermatzea eta zaintzea”, askatasunaz gabetzeko zigorraren betearazpenean berrezitzeko eta birgizarteratzeko helburuekiko ez zuela eskusibotasunik (4. OJ)⁶³. Alegia, helburu horietatik kanpo geratzen zela.

Bada, bi artikulua horiek oinarri hartuz, Espainiako espetxe-sistemak ordenamendu juridikoak aurreikusitako berreziketa eta birgizarteratzera bideratutako printzipioa betetzen duen, edo, horren faltan, hura lortzea eragozten duen agindurik edo neurririk ezartzen duen, eta Espainiako zein nazioarteko legeriek aurreikusitako eskubideak errespetatzen dituen aztertuko da.

Horretarako, fitxategiek presoek bizitzan eragina duten zenbait esparru aztertzen joango gara, JBBFa gidatzen duten oinarrizko printzipioetatik elementu konkretuetara arte.

4.1. Nazio Batuek zehaztutako oinarrizko printzipioak

Nazio Batuen Batzar Nagusiak 2015eko abenduaren 17an onartutako ebazpenaren bidez, presoek tratamendurako gutxieneko arau batzuk ezarri zituen⁶⁴. Horien helburua, besteak beste, oinarrizko giza eskubideetan, gizakiaren duintasun eta balioan, eta, inolako bereizketarik gabe, gizonen eta emakumeen eskubide-berdintasunean fedea berrestea zen.

⁶² ELOO 59.1. artikuluan berriz ere erreferentzia egiten zaio printzipio horri, hurrengo esanez: “Espetxe-tratamendua zigortuen berreziketa eta birgizarteratzea lortzera zuzenean bideratutako jardueren multzoa da.”

⁶³ GUIASOLA LERMA, Cristina, “Horas de luz: régimen penitenciario cerrado y política criminal de emergencia”, VIVES ANTÓN, Tomás Salvador.; CARBONELL MATEU, Juan Carlos; GONZÁLEZ CUSSAC, José Luis; ALONSO RIMO, Alberto; eta ROIG TORRES, Margarita (Koord.), *Crímenes y Castigos. Miradas al Derecho penal a través del arte y la cultura*, Tirant lo Blanch, Valentzia, 2014, 465. or.

⁶⁴ GEGMB, Batzar Nagusiak, “70/175. Presoen tratamendurako Nazio Batuen gutxieneko arauak (Nelson Mandela Arauak)”.

Arau hauetan nabarmendu egiten da kartzelatuen trataeran ez dela azpimarratuko hauek gizartetik kanpo geratzen direla, baizik eta, aitzitik, gizartearen parte izaten jarraitzen dutela. Horretarako, ahal den neurrian, komunitateko erakundeen lankidetzat bilatuko dela eta espetxe bakoitzak gizarte-langileen laguntza izango duela ezartzen da⁶⁵, helburua beti preso dauden pertsonen berreziketa eta birgizarteratzea izanik.

Aipatutako helburuetik bat oinarrizko giza eskubideetan fedea berrestea izan da, eta horretarako ezinbestekoa da espainiar ordenamendu juridikoa aztertzea. Izan ere, oinarrizko giza eskubideetako bat, Espainian zein nazioarte mailan, gizaki orok duen askatasunerako eskubidea da. Jarraian, eskubide horrek Espainiako espetxe-sisteman hartzen duen forma aztertuko da, horretarako nazioarte mailako araudiari ere erreparatuz.

4.2. Norberaren askatasunerako eskubidea

Giza Eskubideen Europako Hitzarmenaren 5. artikuluan *askatasunerako eta segurtasunerako* pertsona orok duen eskubidea aurreikusten da, esanez, inori ezin zaiola askatasuna kendu, hitzarmenean aurreikusitako kasuetan eta legeak ezarritako prozeduraren arabera ez bada (5.1. art.).

Espainiaren kasuan, bere ordenamendu juridikoaren arau nagusienak, Konstituzioak, bere 17. artikuluan *norberaren askatasunerako eskubidea* aurreikusten du. Bertan azaltzen da pertsona orok duela askatasunerako eta segurtasunerako eskubidea, baita inori ezin izango zaiola askatasunik kendu ere, artikulua honetan ezarritakoa bete ezean eta legean aurreikusitako kasuetan eta moduan ez bada. Gainera, 17. artikuluan aurreikusitako bi eskubide horiek (askatasunerako eta segurtasunerako eskubideak) batera ulertu behar dira, ez baitira ondasun juridiko bereziak, eskubide bereko bi traktu baizik⁶⁶.

Edonola ere, norberaren askatasunerako eskubideak espetxe-sistemaren barnean hartzen duen forma bestelakoa da. GONZÁLEZ COLLANTESek azaltzen duen moduan, EK 17. artikuluan aurreikusitako eskubidea ez da hutsaltzen preso izaera izateagatik, horien *status libertatis*-a aldatzen baita, baina inola ere ez ezabatzen⁶⁷. Hala, nahiz eta, funtsean, barneratuari askatasunerako eskubidea kentzen zaion⁶⁸, eskubide horrek jasan ditzakeen murrizketa garrantzitsuek EK 25.2 artikulua lehenengo tituluko bigarren

⁶⁵ GEGMB, Presoen tratamendurako gutxieneko arauak, 88. araua.

⁶⁶ KAE 341/1993, azaroaren 18koa, 1.c) aurrekariak.

⁶⁷ GONZÁLEZ COLLANTES, Tàlia, “Prisión y terrorismo yihadista: los FIES como medida penitenciaria de prevención de atentados, de adiestramiento y reclutamiento con fines terroristas”, ALONSO RIMO, Alberto; CUERDA ARNAU María Luisa; FERNÁNDEZ HERNÁNDEZ, Antonio (Zuzend.), *Terrorismo, sistema penal y derechos fundamentales*, Tirant lo Blanch, Valentzia, 2018, 483. or.

⁶⁸ GUIASOLA LERMA, Cristina, “Horas de luz: régimen penitenciario cerrado y política criminal de emergencia”, VIVES ANTÓN, Tomás Salvador.; CARBONELL MATEU, Juan Carlos; GONZÁLEZ CUSSAC, José Luis; ALONSO RIMO, Alberto; eta ROIG TORRES, Margarita (Koord.), *Crímenes y Castigos. Miradas al Derecho penal a través del arte y la cultura*, Tirant lo Blanch, Valentzia, 2014, 466. or.

kapituluko oinarrizko eskubideak mugatu ahal izateko eskatzen duen lege-estaldura egokia izan behar du. Hau da, zigortuei oinarrizko eskubideak mugatzeko beharrezkoa da kondena-epaian, zigorraren zentzuan eta Espetxe-legean hura berariaz aurreikusita egotea⁶⁹.

Hari bera jarraituz, Konstituzio Auzitegiak materia honi buruz argitu izan du «*[que] ello en modo alguno supone que quede el legislador apoderado para establecer, libre de todo vínculo, cualesquiera supuestos de detención, arresto o medidas análogas. La Ley no podría, desde luego, configurar supuestos de privación de libertad que no correspondan a la finalidad de protección de derechos, bienes o valores constitucionalmente reconocidos o que por su grado de indeterminación crearan inseguridad o incertidumbre insuperable sobre su modo de aplicación efectiva y tampoco podría incurrir en falta de proporcionalidad*». Hots, «*[como] ya dijimos en la STC 178/1985, [...] debe exigirse "una proporcionalidad entre el derecho a la libertad y la restricción de esta libertad, de modo que se excluyan -aun previstas en la Ley- privaciones de libertad que, no siendo razonables, rompan el equilibrio entre el derecho y su limitación" (fundamento jurídico 3)*»⁷⁰.

Gainera, «*no son éstos los únicos condicionamientos que pesan aquí sobre el legislador, pues la necesaria conexión entre los arts. 17.1 y 10.2 de la Constitución impone acudir a los tratados y acuerdos internacionales en la materia y, en particular, al ya citado Convenio de Roma, para interpretar el sentido y límites de aquel precepto constitucional. Es de relevante consideración, a estos efectos, que el art. 5.1 de aquel Convenio, luego de disponer que "toda persona tiene derecho a la libertad y a la seguridad", establece una relación de supuestos (taxativa, según la doctrina del Tribunal de Europeo de Derechos Humanos) en los que podrá legítimamente preverse una privación de libertad*»⁷¹.

4.3. Presoen tratamendua espetxeetan

Askatasunaz gabetuta preso daudenei eman beharreko tratamenduari dagokionez, Nazio Batuen presoen tratamendurako gutxieneko arauak ezartzen dute tratamenduaren helburua izan behar duela (kondenaren iraupenak ahalbidetzen duen neurrian) legearen arabera bizitzeko borondatea erakustea, beren lanaren emaitzarekin jarraitzea eta horretarako gaitasuna sortzea; beti ere, hura beren buruarekiko errespetua sustatzera eta erantzukizun-zentzua garatzera bideratuta egonik⁷².

Helburu hori lortzeko, bitarteko egoki guztiak erabili beharko dira, hala nola: erlijio-laguntza (hori posible den herrialdeetan), heziketa, lanbide-orientazioa eta -prestakuntza, gizarte-laguntza indibidualerako metodoak, lan-aholkularitza, garapen

⁶⁹ ELOOren 1. eta 2. artikuluetan eta EEren 2. eta 3. artikuluetan adierazten da espetxe-jarduera Legeak, erregelamenduek eta epai judizialek ezarritako bermeekin eta mugen barruan garatuko dela.

⁷⁰ KAE 341/1993, azaroaren 18koa, 5. OJ.

⁷¹ *Ibidem*.

⁷² GEGMB, Presoen tratamendurako gutxieneko arauak, 91. araua.

fisikoa eta printzipio moralak indartzea; hori guztia preso bakoitzaren premia indibidualen arabera eginez⁷³.

Hala ere, lanean zehar azaldu bezala, errealitatea oso bestelakoa da, bereziki, presoen berreziketa eta birgizarteratzeari dagokionez, baina baita espetxean bizitako egunerokotasunari dagokionez ere.

JBBFean barneratuta dauden pertsonak, batetik, miaketa eta behaketa sistematikoak jasatera behartuta egongo dira, gainerako presoek pairatuko ez dituztenak, alegia.

EKren 18.1. artikulua *norberaren barrukotasun eskubidea* inguruan aritzen da, aurreikusiz ohorerako, norberaren eta familiaren intimitaterako eta norberaren irudirako eskubidea bermatzen dela.

Argi dago espetxean sartzeak eragingo diola aipatutako intimitaterako eskubide horri. Hala ere, JBBF delakoan sartze hutsagatik eskubide hori erabat baldintzatua ikusiko da. Izan ere, fitxategi horien barruan sartzeak, teorian bizi-erregimen bat ez dela gogora ekarriz, gainerako presoek aplikatzen ez zaizkien neurri hertsakorrek aplikatzea ekarriko du, besteak beste: lekualdaketen kasuan, JBBFen sartutako barneratuek beren lekualdaketei buruzko araudi espezifikoa dute, zeinak segurtasun-neurriak indartzen dituen: miaketa zehatzak eginez, arriskugarritasuna jakinaraziz, aurrez miatutako gelaxketan sartuz...⁷⁴

Hari beretik, miaketen aldizkakotasunari dagokionez, ez da ezer ezartzen, oro har, Espetxeen Erregelamenduan, ezta, are gutxiago, Espetxeen Lege Organiko Orokorrean ere; aitzitik, hura premia-, egokitasun- eta proportzionaltasun-printzipioak aplikatzearen mende geratzen da. Printzipio horiek, aldiz, ez dira kontuan hartzen JBBF presoek dagokienez, ordena- eta segurtasun-arrazoietan oinarrituz egiten dira eta (erabakia arrazoitua eta indibidualizatua izan eta denboran ez mugatua izan gabe). Are gehiago, 2011ko Instrukzioak adierazten du kontrol zorrotzagoa egingo dela eta behaketa berezia egingo dela Sailaren kanporako irteeren kasuan, baita Espetxe Erregelamenduaren 65. artikuluan aurreikusitako berehalako barne-segurtasuneko neurriak sustatuko direla ere (miaketak, zenbaketak, errekiak... egitea). Horrek guztiak berarekin ekarriko du barneratuak miatzea ziegara sartu eta bertatik irteten diren bakoitzean, gutxienez, egunero lau miaketa eginez.

Miaketez gain, askatasunez gabetuta dauden pertsonak behaketa zorrotza bizi dute. Espetxe Erregelamenduaren 66. artikulua ezartzen duenari helduz, behaketa horien helburua presoek ohiko portaera, esleitutako departamentuaren barruan eta kanpoan egiten dituzten jarduerak eta mugimenduak, baita gainerako barneratuekin dituzten harremanak eta, hala badagokio, haiengan duten eragin onuragarria edo kaltegarria ere jakitea izango da.

⁷³ GEGMB, Presoen tratamendurako gutxieneko arauak, 92. araua.

⁷⁴ CERVELLÓ DONDERIS, Vicenta, *Derecho Penitenciario*, 4. argitalpena, Tirant Lo Blanch, Valentzia 2016, 181. or

Hala ere, gainerako kasuetan bezala, JBBF barneatuen egoera ez da preso komunen egoera bezalakoa. Izan ere, 2011ko Instrukzioan bertan, terrorismoarekin lotutako barneratuen kontrolari buruzko neurri gisa, besteak beste, honako hauek jasotzen dira: egunean zein gauean zehar, gelaxkan eta gelaxkatik kanpo, etengabeko behaketa egitea (bereziki, sailetik kanpora irteerak egiten direnean komunikazioak egiteko, erizaintzako kontsultetara joateko edo saila uztea dakarren beste edozein egoeratarako joateko); *gaueko txandak* egitea, horiek bi ordutik gorakoa ez den maiztasunarekin eginez, edo ordu batetik gorakoa subjektua erregimen itxian badago...

Horri gehitu beharko zaio neurri horietaz gain, fitxategietan barneratuta egoteagatik presoek aldizkako gelaxka-aldaketak jasango dituztela; eta lekualdatzeetan irteerak noiz gertatuko diren ere ez dutela jakingo, ezta arrazoi medikoengatik edo justiziarekin hitzordua izateagatik gertatzen direnean ere⁷⁵.

SOLAR CALVOK dioen bezala (lanean zehar baieztapen honen kontrako argudioak adierazi arren, honetaz gain beste urraperen batzuk ere daudelako), murrizketa gehienak ELOOK eta EEK ezartzen dituzten mugen barruan hartzen badira ere, zenbait neurri 12/2011 Instrukzioak berak markatutako mugak gainditzea eragiten du, horren adibideetako bat presoen aldizkako gelaxka-aldaketa izanik. Izan ere, aldizka eta segurtasun-arrazoi zorrotzengatik presoak gelaxkaz aldatuko direla zehazten duenean (kontuan hartuz aldaketa horiek ez direla bi hilabetetik beherako aldizkakotasunarekin egingo, salbu eta berehala egiteko arrazoi zehatzik badago), neurri mugatzaile berri bat sartzen da erregimenaren ikuspegitik, EEren 65.1 artikulua berrian aurreikusitakoa, baina, zenbaketa, miaketa eta erreksiekin gertatzen ez den bezala, legez aurreikusita ez dagoena⁷⁶.

Konstituzio Auzitegiaren 89/2006 Epaiak, martxoaren 27koak, zehaztu zuen espetxe batean barneratuta dagoen pertsona batek betetzen duen gela ez dela, berez, haren egoitza (terminoa konstituzio-zentzuan ulertuz). Hala ere, Auzitegiak onartu izan du, epai horretan eta beste batzuetan (KAE 283/2000, azaroaren 27), espetxe bateko gela intimitate-eremu bat dela bertako okupatzailearentzat, espetxeratze-egoera horretan bizitza pribatua garatzeko espazio egokia baita. Beraz, barneratuaren iraunkortasunari edo garapenari eragiten dion edozein neurri intimitaterako oinarritzko eskubideari eragiten diola ulertuz, hura legez aurreikusitakoa izan beharko du; esan bezala, oraingoan gertatzen ez dena⁷⁷.

⁷⁵ GONZÁLEZ COLLANTES, Tàlia, "Prisión y terrorismo yihadista: los FIES como medida penitenciaria de prevención de atentados, de adiestramiento y reclutamiento con fines terroristas", ALONSO RIMO, Alberto; CUERDA ARNAU María Luisa; FERNÁNDEZ HERNÁNDEZ, Antonio (Zuzend.), *Terrorismo, sistema penal y derechos fundamentales*, Tirant lo Blanch, Valentzia, 2018, 474-498. or.

⁷⁶ SOLAR CALVO, Puerto, *El sistema penitenciario español en la encrucijada: una lectura penitenciaria de las últimas reformas penales*, AGENCIA ESTATAL BOLETÍN OFICIAL DEL ESTADO, Madril, 2019, 171. or.

⁷⁷ *Ibidem*.

Neurri horiek guztiak, oinarrizko eskubideen urraketaren gaitzespena egiteko oinarria izateaz gain, gogorragoa egiten dute espetxeratzearen egunerokotasuna, batez ere kontuan hartuta neurri horiei bizi-erregimenari dagozkion neurriak gehitu behar zaizkiela, preso bakoitzari aplikagarri zaion sailkapenaren arabera⁷⁸.

Bestetik, birgizarteratzearen eta, batik bat, familiari begira, Nazio Batuen presoen tratamendurako gutxieneko arauetan aurreikusten da bereziki zainduko dela presoaren eta haren familiaren arteko harremanak mantentzea eta hobetzea, bi alderdien onerako⁷⁹.

Horretarako, behar bezala hartuko da kontuan, zigorra betearazten hasten denetik, presoak askatu ondoren izango duen etorkizuna; preso dagoen horri lagutza emanaz kanpoko pertsonekin edo erakundeekin harremanak izateko edo egiteko, baldin eta horiek birgizarteratzearen eta familiaren interes gorenaren alde egiten badute⁸⁰.

Hori, ordea, nekez lor daiteke, besteak beste, zaintzapeko erakundeak modulu hauetara sartzeari debekatzen bada, edota, preso senideen bizilekutik maiz urruntzen baldin bada⁸¹, honek leku jakin batekin izan dezakeen familia-lotura kontuan hartu gabe. Horrek lotura estua du bereziki JBBF-3 delakoarekin. Izan ere, terrorismo-delituengatik kondenatutakoak JBBF delakoan sartzearekin batera, espetxe-politikaren beste elementu bereizgarrietako bat hauei aplikatzen zaien sakabanatze- edo urruntze-politika da, aurreko kasuan bezala, presoaren eta familiaren arteko harremanak mantentzea eta hobetzea, eta, beraz, kartzelatuaren birgizarteratzea zaildu egiten duelarik⁸².

4.4. Eguneroko bizitza egiteko gelen baldintzak

Presoak bizi edo lan egin behar duen lokalei dagokionez, leihok behar bezain handiak izan beharko dute presoak argi naturalarekin irakurtzeko eta lan egiteko aukera izan dezan; edo, argi artifiziale dagoen kasuetan, argi artifizialak nahikoa izan beharko du presoak irakurtzeko eta lan egiteko aukera izan dezan, haren ikusmenaren kalterik egin gabe. Gainera, leihoak aire freskoa sartzeko moduan jarri beharko dira, aireztapen artifiziale egon edo ez⁸³.

⁷⁸ GONZÁLEZ COLLANTES, Tàlia, “Prisión y terrorismo yihadista: los FIES como medida penitenciaria de prevención de atentados, de adiestramiento y reclutamiento con fines terroristas”, ALONSO RIMO, Alberto; CUERDA ARNAU María Luisa; FERNÁNDEZ HERNÁNDEZ, Antonio (Zuzend.), *Terrorismo, sistema penal y derechos fundamentales*, Tirant lo Blanch, Valentzia, 2018, 474-498. or.

⁷⁹ GEGMB, Presoen tratamendurako gutxieneko arauak, 106. araua.

⁸⁰ GEGMB, Presoen tratamendurako gutxieneko arauak, 107. araua.

⁸¹ BRANDARIZ GARCÍA, José Ángel, “Notas sobre el régimen penitenciario para penados considerados extremadamente peligrosos: Departamentos especiales y F.I.E.S.-I (CD)”, *Estudios Penales y Criminológicos*, 135. zk., 2012, 31. or.

⁸² LÓPEZ LORCA, Beatriz, “Aspectos penitenciarios de los delitos de terrorismo”, ÁLVAREZ GARCÍA, Francisco Javier (Zuzend.), PÜSCHEL VENTURA, Arturo (Koord.), *Tratado de Derecho Penal Español Parte Especial. VI. Delitos contra el orden público (II)*, Tirant Lo Blanch, Valentzia, 2021, 397. or.

⁸³ GEGMB, Presoen tratamendurako gutxieneko arauak, 14. araua.

Hala ere, CERVELLÓ DONDERISek adierazten duen moduan⁸⁴, behin baino gehiagotan salatu izan da erregimen itxiaz eta sail berezietz gain, JBBF-lean esaterako, xafla metaliko zulodunez estalitako leihoak erabili izan direla, argiztapen elektriko jarraituaren beharra eragiten dutenak. Era berean, Giza Eskubideen aldeko Elkarteak egindako txostenak eta "Mil Voces Presas" lan ezagunak agerian utzi dute gelaxkek ate bikoitza dutela (normala eta segurtasun-burdinazko barroteena) eta, kasu askotan, leihoak aireztatzeke zulo txikiak dituen metalezko xafla batez estalita daudela⁸⁵.

4.5. Norberaren erabilerarako objektuak

Arropari dagokionez, beren jantziak janzten uzten ez zaien presoek osasun onean egoteko klimarako egokia den eta nahikoa den arropa jasoko dute. Arropa hori ezin izango da inola ere apalgarria edo umiliagarria izan; eta hura garbi eta egoera onean eduki behar da⁸⁶.

Era berean, preso guztiek tokiko edo nazioko erabilerekin bat etorritik, ohe indibidual bat eta oheko arropa indibidual nahikoa izango dute, garbi entregatua, behar bezala mantendua eta erregulartasunez aldatua, garbitasuna ziurtatzeko⁸⁷. Gainera, preso orok, oherako behar duten arropaz gain, gauzak gordetzeko altzari egokia izango dute⁸⁸.

Alabaina, kasu batzuetan, JBBF erregimeneko presoek debekatu egin zaie bi jantzi baino gehiago edukitzea, zentro batzuetan jantzi bakarra ematen zaielarik. Izan ere, BRANDARIZ GARCÍAek adierazten duen moduan⁸⁹, bereziki arriskutsutzat eta gatazkatsutzat jotzen diren preso jakin batzuk kontrolatzeko neurriei dagokienez, agintzen da beren gelaxkan egunero erabiltzeko gutxieneko arropa eta tresnak soilik edukiko dituztela, horiek entregatutakoen eta bildutakoen miaketa zehatza egin ondoren aldatuz. Gainera, gelaxkan soilik bi liburu, bi aldizkari edo egunkari eduki ahal izango dituzte, eta, ikasketak egiten badituzte, behar duten material didaktikoa ere bai.

4.6. Ariketa fisikoa egiteko aukerak

Aire zabalean lanik egiten ez duen preso orok, eguraldiak horretarako aukera ematen badu, egunean gutxienez ordubete izango du aire zabalean ariketa fisikoa egiteko. Gainera, preso gazteek, eta adinak eta egoera fisikoak horretarako aukera ematen dieten beste batzuek, heziketa fisikoa eta aisialdikoa jasoko dute ariketarako erreserbatutako

⁸⁴ CERVELLÓ DONDERIS, Vicenta, *Derecho Penitenciario*, 4. argitalpena, Tirant Lo Blanch, Valentzia 2016, 232. or.

⁸⁵ BRANDARIZ GARCÍA, José Ángel, "Notas sobre el régimen penitenciario para penados considerados extremadamente peligrosos: Departamentos especiales y F.I.E.S.-1 (CD)", *Estudios Penales y Criminológicos*, 135. zk., 2012, 31-32. or.

⁸⁶ GEGMB, Presoen tratamendurako gutxieneko arauak, 19.1 eta 2 arauak.

⁸⁷ GEGMB, Presoen tratamendurako gutxieneko arauak, 21. araua.

⁸⁸ ELOO 21.1. art. eta EE 14.2. art.

⁸⁹ BRANDARIZ GARCÍA, José Ángel, "Notas sobre el régimen penitenciario para penados considerados extremadamente peligrosos: Departamentos especiales y F.I.E.S.-1 (CD)", *Estudios Penales y Criminológicos*, 135. zk., 2012, 28-29. or.

aldian. Horretarako, beharrezkoak diren espazioa, instalazioak eta ekipamendua jarriko dira haien eskura⁹⁰.

Heziketa fisikoaren gai hau bi aldeetatik aztertuko da. Batetik, kontuan hartu beharko da, CERVELLÓ DONDERISek aipatu bezala⁹¹, behin baino gehiagotan salatu izan dela JBBF barneratuen kasuan erabili izan dituzten patioak metalezko hesi batekin estaliak direla (baita sabaia estalita dagoela ere)⁹². Gainera, fitxategi hauen barruan sartzen direnei debekatu egiten zaie ere lantegia edo kiroldegia erabili ahal izatea. Horrekin batera, erregimen itxia aplikatzen zaien JBBF barneratu batzuei gela barruan jateko obligazioa ere ezartzen zaie, patioa soilik bi ordu atera ahal izanik.

Bestetik, nahiz eta Nazio Batuen presoen tratamendurako gutxieneko arauak markatutako minimoak errespetatu, eta ELOO 3.IV. artikulua arabera, Espetxeetako Administrazioak presoen bizitza, osotasuna eta osasuna zaindu behar dituela kontuan hartuz, aire zabalean ariketa fisikoa egiteko egunean gutxienez ordubete (edo sail berezien kasuan gutxienez 3 ordu, nahiz eta batzutan minimo hori ere ez errespetatu⁹³) izatea nahikoa al da kartzelatuen osasuna (fisikoa zein mentala) bermatzeko? Aintzat hartu behar da espetxe-sistemaren helburu nagusia preso horien berreziketa eta birgizarteratzea dela, eta hori nekez lortu ahal izango da barneratuen harremantzeko aukera minimora mugatzen bada.

4.7. Espetxe-sistemaren onuren mugaketa

Establezimendu bakoitzean onura-sistema bat ezarriko da, presoen kategoria desberdinetara eta tratamendu-metodo desberdinetara egokitua, presoen jokabide ona sustatzeko, haien erantzukizun-zentzua garatzeko eta haien interesa eta lankidetzaren sustatzeko haien tratamenduari dagokionez⁹⁴.

Hau guzti hau kontuan hartuz, gogora ekarri behar da espetxe-zuzenbide osoaren oinarriko printzipioa berreziketa eta birgizarteratzea dela, hura lortzea beharra ez bada ere, hori ahalbidetzea eragozten duten agindurik ezin daitekeelarik jarri. Argi dago onura-sistema ezartzeak presoen portaeraren eremu askotan abantailak ekarri ahal dituela. Hala ere, gainerako egoeretan bezala, JBBF delakoan integratzeak baditu bere eragozpenak. Besteak beste, barneratuari ez zaio aplikatuko gainerako barneratuei aplikatzen zaion baldintzapeko askatasuna: preso komunei hura kondenaren bi herenetan aplikatu ahal bazaie ere, jokabide onagatik eta bestelako baldintzarik ez egoteagatik, JBBF barneratuei hura kondenaren hiru laurdenetara heltzean aplikatu ahal izango zaie eta.

⁹⁰ GEGMB, Presoen tratamendurako gutxieneko arauak, 23. araua.

⁹¹ CERVELLÓ DONDERIS, Vicenta, *Derecho Penitenciario*, 4. argitalpena, Tirant Lo Blanch, Valentzia 2016, 232. or.

⁹² Giza Eskubideen aldeko Elkarteak egindako txostenak eta "Mil Voces Presas" lan ezagunak ere salatu izan dute hura.

⁹³ BRANDARIZ GARCÍA, José Ángel, "Notas sobre el régimen penitenciario para penados considerados extremadamente peligrosos: Departamentos especiales y F.I.E.S.-1 (CD)", *Estudios Penales y Criminológicos*, 135. zk., 2012, 31. or.

⁹⁴ GEGMB, Presoen tratamendurako gutxieneko arauak, 95. araua.

4.8. Espetxean lan egiteko aukerak

Lanari dagokionez, Nazio Batuen presoen tratamendurako gutxieneko arauak ere aurreikusten dute presoek beren berreziketan aktiboki parte hartzeko eta lan egiteko aukera izan beharko dutela, lanaldi arrunt batean lanean jarraitzeko adina produkzio-lan emanez⁹⁵. Izan ere, ELOOren 26. artikulua araberan, lana barneratuaren eskubidetza eta betebehartza hartuko da, eta tratamenduaren funtsezko elementua izango da.

Espetxe-lana ez da samingarria izango, presoek ez zaie esklabotzarik edo zortasunik ezarriko, eta espetxeratuak ez dira behartuko espetxeko funtzionario baten onura pertsonal edo pribatura lan egitera⁹⁶. Era berean, lana ez da afliktiboa izango, eta ez da zuzenketa-neurri gisa aplikatuko⁹⁷.

Kasu honetan ere, lana berreziketa eta birgizarteratzea lortzera bideratuta egongo da, ahal den neurrian, lanak lagundu egingo duelako, bere izaeratik, aske utzi ondoren bizitza zintzo irabazteko presoak duen gaitasuna mantentzen edo gaitasun hori areagotzen. Horretarako, presoek baliagarria den lanbide baten inguruko lanbide-heziketa emango zaie; mugen barruan, nahi duten lan-mota aukeratu ahal izango dutelarik⁹⁸.

Lanak, beraz, berreziketa eta birgizarteratzeari begira garrantzia handia izan dezakeen alorra da, esan bezala, horrek etorkizunean lan bat izatera eta gizartean berriz ere era zintzo batean moldatzera lagundu ahal dituelako kartzelatutako horiek. Alabaina, badira zenbait kasu zeinetan fitxategien barne dauden horiek ezin duten lanik egin; lan, tailer edo ikastaroren batean parte hartzeko debekua ezartzen zaielako.

⁹⁵ GEGMB, Presoen tratamendurako gutxieneko arauak, 96. araua.

⁹⁶ GEGMB, Presoen tratamendurako gutxieneko arauak, 97. araua.

⁹⁷ ELOO, II. Titulua, II Kapituluak, 26. artikulua.

⁹⁸ GEGMB, Presoen tratamendurako gutxieneko arauak, 98. araua.

5. JARRAIPEN BEREZIKO BARNERATUEN FITXATEGIEN INGURUKO HAUSNARKETAK ETA KRITIKAK

JBBF “erregimenari” dagokionez, ez dut inolako eragozpenik izaera administratiboko datu-base batean preso arriskutsuen zigor-, prozesu- eta espetxe-egoerari buruzko informazioa jasotzearen inguruan. Are gehiago, datu-base horrek barneratuak hobeto ezagutu eta horien gaineko kontrol egokia sustatzen baldin badute egokia ikusten dut; beti ere, horren aplikazioa segurtasun-arrazoiengatik (proportzionalak badira) zein birgizartratzea ahalbidetzen edo errazten duen tratamendu indibidualizatua emateko egindakoa baldin bada.

Asko dira JBBFak kritikatu dituzten autoreak (horietako batzuen ikuspuntua lan honetan aztertu delarik), besteak beste: Cervelló Donderis, Arribas López, Brandariz García, Mir Puig, Ríos Martín, Mapelli Caffarena... Eta ia guztiak bat datoz datu-basetik kritikatu beharrekoa zer den nabarmentzean.

Fitxategi horien bidez, izaera administratiboko datu-base bat sortu nahi izan zen, Espetxeetako Zuzendaritza Nagusiak kudeatutakoa, non preso jakin batzuen jarraipena eta kontrola egiteko beharrezkoa zen informazioa biltzen zen. Hala ere, fitxategi horien bidez bizi-erregimen berria sortu zen, desberdina. Horiekin, erregimen arrunteko barneratuek erregimen itxiaren antzeko beste bat izatea baimendu zen, baita lehen graduan sailkatutakoei aplikatzen zitzairen bizi-erregimenari baldintza berriak gehitzea ere, murriztaileagoak. Gainera, hau guzti hau lege- eta erregelamendu-babesik gabe egin zen, eta, beraz, legezketasunaren, lege-erreserbaren eta arau-hierarkiaren printzipioak urratu ziren, oinarritzko eskubide batzuk urratu eta Espainiako Konstituzioan jasotako agindu birsozializatzailearen ondoriozko eskakizunak alde batera uzteaz gain⁹⁹.

Ezkutuko araubide berri hori sortzeak ezarritako helburua lortzeko beharrezkoa zenaz haratagoko neurriak eta murrizketak biltzea ekarri zuen¹⁰⁰. Horrek guztiak, gainera, preso zegoen pertsonaren *status libertatis*-ean eragina zuen, hura mugatzen baitzuen, eta, beraz, EK 17. artikuluan ere eragiten zuen. Egia da EK 25.2. artikulua oinarritzko eskubideen gaineko murrizketak onartzen dituela, beti ere murrizketa horiek berariaz agertzen badira kondena-epaian, zigorraren zentzuan eta Espetxe-legean. Hala ere, fitxategien kasuan ez da horrelakorik gertatzen, JBBF delakoa sortu denetik ez delako ELOOn arautua izan, ezta hura garatzen zuen erregelamenduan ere (sortu zen garaian

⁹⁹ GONZÁLEZ COLLANTES, Tàlia, “Prisión y terrorismo yihadista: los FIES como medida penitenciaria de prevención de atentados, de adiestramiento y reclutamiento con fines terroristas”, ALONSO RIMO, Alberto; CUERDA ARNAU María Luisa; FERNÁNDEZ HERNÁNDEZ, Antonio (Zuzend.), *Terrorismo, sistema penal y derechos fundamentales*, Tirant lo Blanch, Valentzia, 2018, 481. or.

¹⁰⁰ Ezkutuko araubide gisa definitzen da JBBFak beharrezko argitalpen ofizialik gabeko maila apalagoko arauen bidez arautua izan delako, horrek fitxategien bilakaera juridikoa nahiko ezezaguna bihurtuz (BRANDARIZ GARCÍA, José Ángel, “Notas sobre el régimen penitenciario para penados considerados extremadamente peligrosos: Departamentos especiales y F.I.E.S.-I (CD)”, *Estudios Penales y Criminológicos*, 135. zk., 2012, 23. or.).

behintzat)¹⁰¹. Era berean, Zigor Kodean eta ELOOn legezkotasun-printzipioari erreferentzia egiten zaio, esanez zigorra zein espetxe-jarduera bera legearen eta erregelamenduek ezartzen duten moduan aurrera eraman beharko dela.

Nabarmendu beharreko beste puntu bat da JBBFa sortu zen garaian indarrean zegoen araudiaren arabera Espetxeen Zuzendaritza Nagusiak emandako zirkularrak eta instrukzioak establezimenduen barne-araubidea antolatzaera zuzenduta egon behar zutela, eta ezin zuten inolako eraginik izan Espetxe Administrazioaren barne-esparrutik haratago¹⁰². Hala, materialki erregelamendu-izaera eman ahal izateko ezinbestekoa zen baldintza batzuk betetzea, fitxategiek betetzen ez zituztenak. Hain zuzen ere, zirkular eta instrukzioek erregelamendu-izaera izateko ezinbestekoa zen erregelamendu-ahala zuten organo eskudunek emandakoak izatea, gertatu ez zena¹⁰³. Gainera, zirkularrak eta instrukzioak ere ez ziren ofizialki argitaratu hirugarrenen aurrean eraginkorrak izateko¹⁰⁴.

Horrekin batera, ezin dakiteke ahaztu fitxategiek, materialki, erregelamendu-izaera izatea lortu arren, Auzitegi Gorenak bere garaian 2009ko epaian ondorioztatu zuen bezala, fitxategien erregulazioa lege-mailakoa izan behar zuen, eta ez erregelamendu bidezkoa. Azken finean, erregelamendu-izaerako arauak ezin dira arduratu oinarrizko eskubideen garapenari eta edukiari edo eskubide horiek gauzatzeari eragiten dieten gaiez; esparru hura lege organikoari erreserbatuta dago eta.

Bestalde, 70eko hamarkadaren amaieran, berreziketaren eta birgizarteratzearen printzipioa ordenamendu juridikoan sartu zen, EKko 25.2 artikuluan jasoz, oinarrizko eskubideen eta askatasun publikoen artean.

Urteetan zehar doktrinaren arteko eztabaida eman izan da artikulua horrek jasotzen duen interpretazioaren arabera. Hala ere, horri buelta gehiago ez ematearren, arestian azaldu baita, KAK markatutako bideari jarraituko diogu, hots, 25.2 artikulua zigorrak betearazteko sistema bideratzeratzeko tresna baino ez izateari (kontuan hartuz printzipioa eragozten duten agindurik balego hura urratuko litzatekeela).

Kartzelan preso dauen pertsonak, gainerakoek bezala, errespetatu beharreko oinarrizko eskubide batzuk dituzte, EK 25.2 artikuluan aldarrikatzen den moduan. Hala ere, eskubide horiek mugatu ahal izango dira kondena-epaian, zigorraren zentzuan eta Espetxe-legean hura berariaz aurreikusita baldin badago.

¹⁰¹ GONZÁLEZ COLLANTES, Tàlia, "Prisión y terrorismo yihadista: los FIES como medida penitenciaria de prevención de atentados, de adiestramiento y reclutamiento con fines terroristas", ALONSO RIMO, Alberto; CUERDA ARNAU María Luisa; FERNÁNDEZ HERNÁNDEZ, Antonio (Zuzend.), *Terrorismo, sistema penal y derechos fundamentales*, Tirant lo Blanch, Valentzia, 2018, 482. or.

¹⁰² 30/1992 Legea, azaroaren 26koa, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearena, 21.1. artikulua.

¹⁰³ Estatuko Administrazio Orokorraren Antolamenduari eta Funtzionamenduari buruzko apirilaren 14ko 6/1997 Legetik ondorioztatzen da Espetxeetako Zuzendaritza Nagusiak ez duela eskumen hori.

¹⁰⁴ 30/1992 Legea, azaroaren 26koa, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearena, 60. artikulua.

Presoei eta, zehazki, JBBF presoei dagokienez, zigorraren zentzuak espetxe batean bizitzera behartzen dituela esan daiteke. Ezarritako zehapena, espetxealdikoa, askatasunaz gabetzen duena izanik, horrek askatasunerako oinarriko eskubideari eragiten dio, Konstituzioaren 17. artikuluan aldarrikatutakoari. Hala ere, horrek preso dagoenaren *status libertatis*-a aldatzea dakar, eta ez estatusa bera kentzea, aurreko orrialdeetan ohartarazi den bezala.

JBBF “erregimenari” helduz, GONZÁLEZ COLLANTESek adierazten duen moduan¹⁰⁵, 2011ko instrukzioak *status libertatis* hori aldatzeaz haratago, askatasunari konstituzionalki onargarriak ez diren mugak ezartzen dizkio, ez baitira proportzionalak. Hain zuzen ere, proportzionala izan dadin, ezarritako murrizketa lortu nahi den helburua lortzeko beharrezkoa izan behar da, eta gaur egun JBBF fitxategiak arautzen dituen instrukzioak ez ditu baldintza horiek betetzen. Izan ere, aurrekoetan ez bezala, instrukzioak ez du azpimarratzen delitu-formula konplexuak eta espetxe-sistemaren elementu desegonkortzaileak egon behar direla. Aitzitik, batez ere terrorismotik eta delinkuentzia antolatutik datozen segurtasunerako mehatxu eta arriskuei aurre egiteko beharraz ari da; barneratuek izan dezaketen arriskugarritasunera egokitutako tresnak direla esanez.

RÍOS MARTÍNek esandakoa gehituz¹⁰⁶, badirudi Instrukzioa ez dela beharrezkoa aipatzen diren helburuak lortzeko. Izan ere, legez ezarritako bizi-erregimenak delituen aurreko neurriak hartzeko informazio eta kontrol nahikoa aurreikusten dute, eta Espetxe Erregelamenduak hiru sailkapen-mailen alderdiak konbinatzen dituen betearazpen-modulu bat egiteko aukera aurreikusten du. Beharbada, lortu nahi den helburua posible egiteko langileen kopurua handitu beharko litzateke, eta langile horiei guztiei prestakuntza espezializatua eman ere, eta ez gutxi batzuei bakarrik.

Azken finean, 2011ko Instrukzioan esaten bada ere JBBF fitxategietan sartzeak ez duela sailkapena aurrez epaitzen eta ez dakarrela erregelamendu bidez zehaztutakoaz bestelako bizi-erregimenik ezartzen, errealitatea bestelakoa da. Izan ere, nola da posible datu-base batean sartze hutsagatik establezimenduaren segurtasuna eta ordena ona bermatu ahal izatea, bizi-araubidean edo espetxe-araubidean eraginik izan gabe? Are gehiago, CAROU GARCÍAek adierazten duen moduan¹⁰⁷, fitxategi batek, berez, ezin du espetxe-segurtasuna eta -ordena bermatu; fitxategiko datuetatik abiatuta, gehienez ere, segurtasun-protokoloak diseinatzen lagundu dezake eta.

¹⁰⁵ GONZÁLEZ COLLANTES, Tàlia, “Prisión y terrorismo yihadista: los FIES como medida penitenciaria de prevención de atentados, de adiestramiento y reclutamiento con fines terroristas”, ALONSO RIMO, Alberto; CUERDA ARNAU María Luisa; FERNÁNDEZ HERNÁNDEZ, Antonio (Zuzend.), *Terrorismo, sistema penal y derechos fundamentales*, Tirant lo Blanch, Valentzia, 2018, 494. or.

¹⁰⁶ RÍOS MARTÍN, Julián Carlos; PASCUAL RODRÍGUEZ, Esther; ETXEBARRIA ZARRABEITIA, Xabier; *Manual de ejecución penitenciaria. Defenderse de la cárcel*, 2. argitalpena, Universidad Pontificia Comillas, Madril, 2018, 424. or. eta hurrengoak. Autoreak esandakoa 1996ko Instrukzioari lotuta aipatzen du, baina hura 2006ko eta 2011ko Instrukzioetarako ere balio du.

¹⁰⁷ CAROU GARCÍA, Sara, *Primer grado penitenciario y Estado de Derecho. El estatus jurídico de los reclusos en régimen de máxima seguridad*, J.M Bosch, Bartzelona, 2017, 257-271. or.

Bestalde, gogoratu behar da ELOOren 1. artikuluan eta EEren 2. artikuluan adierazitako atxikipenarekin eta zaintzarekin batera, espetxe-jardueraren helburu nagusia aipatzen dela: epaituen berreziketa eta birgizarteratzea. Horien bitartez EKren 25.2 artikuluan jasotako birsozializazio-agindua bete nahi izan zen, baina JBBFak ez zuen lagundu espetxe-funtzio hori eraginkortasunez garatzen, guztiz kontrakoa baizik.

Horri lotuta, Espetxe Erakundeetako Zuzendaritzaren Behaketa Zentralak 2001ean egindako azterlan bat aipatzea interesgarria da. Horren arabera, preso arriskutsuenentzat aurreikusitako erregimen itxiaren beste ondorioetako bat “lehen graduaren eta berrerortzearen” arteko zuzeneko harremana da. Izan ere, egileen arabera, erregimen itxian egon diren presoek %57 espetxetik irten eta hiru urtera berrerortzen dira; lehen graduaren egon ez diren presoek, berriz, %42koa¹⁰⁸. Espainiako zigor-sistemaren “borondate onaren” ustearen aurrean, estatistikek kontrakoa diote: espetxeratutako pertsonen kopurua ia %70 handitu egin zen 1996-2009 aldian. Gainera, datu horrek ez du esan nahi espetxean pertsona gehiago sartzen direnik, baizik eta espetxean denbora gehiago ematen dutela¹⁰⁹.

Bestetik, Herriaren Defendatzaileak, Espainiako espetxe-egoerari buruzko 1989ko txostenean¹¹⁰, ohartarazi zuen lehen graduaren sailkatuta dauden barneratuentzat programatutako jarduerarik ez egoteak areagotu egiten duela bakardadeak eta jarduerarik ezak eragiten duen narriadura psikikoa. Izan ere, lehen graduaren irauteak agresibitatea eta jokabide-desorekak sortzen ditu, eta zehapenak ezartzean, espetxe-sisteman aurrera egitea eragozten dute.

Baina ez hori bakarrik, 2021eko txostenean¹¹¹ Herriaren Defendatzaileak azpimarratzen du azken urteetan suizidioaren ondoriozko heriotzen gorakada nabarmena izan dela, eta hori arreta bereziarekin tratatu behar dela. Are gehiago, Espetxeetako Idazkaritza Nagusiak adierazi duenez, Osasunaren Mundu Erakundeak (OME) bere buruaz beste egitearekin lotzen ditu espetxeetako biztanleek bizi dituzten arrisku-faktore asko, besteak beste: harreman pertsonalen haustura eta isolamendu soziala, familia- eta lan-deserrotzea eta -deslotura, arazo juridiko-penalak, maila sozioekonomiko ertain-baxua edo baxua, gaixotasun edo nahasmendu mentalen pairamena edo substantzia sorgogarrien eta psikoaktiboen abusua. Horregatik, Herriaren Defendatzaileak nabarmentzen du ezinbestekoa dela egoera hori arintzen saiatuko diren dinamikak eta estrategiak sortzea.

¹⁰⁸ GUIASOLA LERMA, Cristina, “Horas de luz: régimen penitenciario cerrado y política criminal de emergencia”, VIVES ANTÓN, Tomás Salvador.; CARBONELL MATEU, Juan Carlos; GONZÁLEZ CUSSAC, José Luis; ALONSO RIMO, Alberto; eta ROIG TORRES, Margarita (Koord.), *Crímenes y Castigos. Miradas al Derecho penal a través del arte y la cultura*, Tirant lo Blanch, Valentzia, 2014, 472-473. or.

¹⁰⁹ *Ibidem*. 474. or.

¹¹⁰ Herriaren Defendatzailea, *Estudio sobre la situación penitenciaria y los depósitos municipales de detenidos 1988-1996*, Madril, 1997, 43. or. eta hurrengoak.

¹¹¹ Herriaren Defendatzailea, *Informe anual 2021 y debates en las Cortes Generales*, 1. bolumena, Madril, 2022, 65. or.

Sail berezi hauen gogortasunak, horiek erregimen itxi edo segurtasun handieneko sailekin parekatuz, legezkotasun arazoak planteatu izan ditu, zehazki, birsozializatzeko helburuarekin zuzenean talka egiten baitu. Gainera, CERVELLÓ DONDERISEk aditzera ematen duen moduan¹¹², horri guztiari zentro horietan irauteko denbora-mugarik ez izatea gehitzen bazaio, ez da zaila Clemmer-ek 1940. urtean “*The prison community*” lan ospetsuan idatzitako baieztapenak partekatzea, hots, espetxe mota horietan kartzela-sistemara egokitzea birsozializazioaren alderantzizkoa dela, bertan espetxeko arauak ikasten baitira, eta ez bizitza librekoak.

Horrenbestez, esan daiteke JBBFaren sorrerarekin segurtasun-maila handieneko bizi-erregimen paralelo bat sortu zela barneratuen talde jakin batzuentzat, *status libertatis*-aren murrizketa edo muga bat sortuz. Horrek, birsozializazio-prozesuan eragina izateaz gain, ez zuen inolako lege-estaldurarik, eta legezkotasun-printzipioaren eskakizun oinarritzkoenak urratzen zituen¹¹³.

Gainera, barneratua kolektibo jakin batzuetan sartzearen ondoriozko segurtasun-neurriak areagotzea argi eta garbi *indibidualizazio zientifikoaren* printzipioaren kontrakoa da, baita datuen tratamendu automatizatuan oinarritutako administrazio-erabakiak debekatzearen aurkakoa ere¹¹⁴.

Bestalde, fitxategian barneratu bat sartzeak erregimen berri bat automatikoki aplikatzea dakarrenik esan ezin bada ere, barneratuak taldetan banatzen dituen arau batetik abiatzea neurri orokorrak eta ia automatikoak hartzea errazten du. Are gehiago, 12/2011 Instrukzioa berak bere burua salatzen du onartzen duenean inguruabar horien indibidualizazioa (zigortuaren ezaugarri pertsonalei erreferentzia eginez) kolektibo jakin bateko edo erakunde bateko kideen ezaugarri komunak konkurrentziarekin ase daitekeela (KAE 141/1999, uztailaren 22koa)¹¹⁵.

Horren aurrean, edozein zuzenbide-estatutan logikoena eta espero zitekeena hura deuseztatzea izan beharko zen, eta, bestela, presoentzako berariazko espetxe-araubide hori amaitzea. Hala ere, horren aurrean Espainiako Gobernuak, 1996ko Espetxe Erregelamendua aldatzeko xedez, 419/2011 Errege Dekretua onartu zuen; eta bide batez, fitxategiak erregelamenduan arautu zituen, horiei arauzko estaldura emateko¹¹⁶.

¹¹² CERVELLÓ DONDERIS, Vicenta, *Derecho Penitenciario*, 4. argitalpena, Tirant Lo Blanch, Valentzia 2016, 228-229. or.

¹¹³ LÓPEZ LORCA, Beatriz, “Aspectos penitenciarios de los delitos de terrorismo”, ÁLVAREZ GARCÍA, Francisco Javier (Zuzend.), PÜSCHEL VENTURA, Arturo (Koord.), *Tratado de Derecho Penal Español Parte Especial. VI. Delitos contra el orden público (II)*, Tirant Lo Blanch, Valentzia, 2021, 397. or.

¹¹⁴ CAROU GARCÍA, Sara, *Primer grado penitenciario y Estado de Derecho. El estatus jurídico de los reclusos en régimen de máxima seguridad*, J.M Bosch, Bartzelona, 2017, 257-271. or.

¹¹⁵ SOLAR CALVO, Puerto, *El sistema penitenciario español en la encrucijada: una lectura penitenciaria de las últimas reformas penales*, AGENCIA ESTATAL BOLETÍN OFICIAL DEL ESTADO, Madril, 2019, 171. or.

¹¹⁶ GONZÁLEZ COLLANTES, Tàlia, “Prisión y terrorismo yihadista: los FIES como medida penitenciaria de prevención de atentados, de adiestramiento y reclutamiento con fines terroristas”, ALONSO RIMO, Alberto; CUERDA ARNAU María Luisa; FERNÁNDEZ HERNÁNDEZ, Antonio

Horren ondorioz, JBBFak legezketasun-printzipioaren, birsozializazio-prozesuaren eta oinarrizko eskubideen kontra egin badu ere, gaur egun fitxategiek badute arauzko estaldura, 419/2011 Errege Dekretuaren eta 12/2011 Instrukzioaren bidez.

(Zuzend.), *Terrorismo, sistema penal y derechos fundamentales*, Tirant lo Blanch, Valentzia, 2018, 491-492. or.

6. AZKEN ONDORIOAK

Lan honen bitartez JBBF delakoak askatasunaz gabetutako pertsonen oinarrizko eskubideak errespetatzen dituen aztertu nahi izan da, fitxategi hauen xedea eta horretarako erabilitako neurri edo baliabideak zeintzuk diren miatuz, baita horien legezketasuna eta proportzionaltasuna aztertuz ere. Horretarako, Espainiako zein nazioarteko araudiak kontuan izan dira, besteak beste, EK 25.2. artikulua, berreziketa eta birgizarteratzeko printzipioari buruzkoa, GEEH eta Nazio Batuen presoentzat tratamendurako gutxieneko arauak.

Lana egin bitartean fitxeroen inguruko zenbait ondorio atera dira, gehienak hauen legezketasuna zalantzan jar dezaketenak. Horiek jarraian azalduko dira.

LEHENENGOA. Jarraipen Bereziko Barneratuen Fitxategiei egin ohi zaien kritiketako bat presoentzat artean bereizketa sortzen dutela da, ordena- eta segurtasun-arrazoietan oinarrituz, preso talde batzuei neurri zorrotzagoak ezartzen zaizkie eta.

Hauexek, berez, preso jakin batzuei buruzko informazio administratiboa jasotzen duen datu-basea baino ez da, establezimenduen segurtasuna eta ordena bermatzeko eta kartzelatu horietako batzuk babesteko xedea duena. Baina, inola ere ezin du ezarri erregelamendu bidez ezarritakoaz bestelako bizi-modalitate edo -erregimenik, ezta hauen sailkapena aurretik epaitu eta barneratuen tratamendua jasotzeko duten eskubidea debekatu ere. Datu-basearen bilakera juridikoa aztertu ostean, berriz, badirudi errealitatea oso bestelakoa dela. Izan ere, JBBFak sortu zirenetik bereizketa eman da ez soilik fitxategietan sailkatuta eta kanpo dauden barneratuen artean (lehenengoei bestelako neurri eta kontrol ezberdina ezarri arriskugarritasuna bezalako arrazoietan oinarrituz), fitxategietan sailkatuen daudenen artean ere, esaterako, JBBF-4 taldearen kasuan.

BIGARRENA. Sailkapen-talderi begira, zenbaitetan datu-basean sailkatzeko irizpideak nahiko zabalak eta zehaztugabeak direla esan daiteke. Adibide moduan JBBF-1 eta JBBF-5 hartuta, talde horietan sartzeko eskatzen diren baldintzak askotan ez dira argi eta garbi azaltzen. Horrek barneratuekiko segurtasun juridiko eza sortzeaz gain, Administrazioaren esku uzten du sailkapen lan hura egitea, horrek preso batzuekiko trataera diskriminatzailea eragin dezakeelarik.

Hala, EK 25.2. artikulua markatutako printzipioaren kontra ez egiteko, edo hobeto esanda, ez oztopatzeko (presoentzat trataera indibidualizatua egitea ezinbestekotzat hartzen baitugu), gutxienez sailkapen-irizpideak era argi eta finko batean aurreikusita egon behar direla uste dugu, modu horretan, Administrazioaren esku hartzearen ondorioz eman daitekeen jokaera diskriminatzailea ekiditeko.

HIRUGARRENA. Aipatu bezala, JBBF delakoa establezimenduen segurtasuna eta ordena bermatzeko eta kartzelatu horietako batzuk babesteko xedea duen datu-basea baino ez da. Hala ere, urtetan zehar, fitxategi horien bidez, preso batzuei buruzko informazioa biltzeaz gain, presoentzat oinarrizko eskubideak hertsatzeko neurriak ezarri dira, ordena- eta segurtasun-arrazoietan oinarrituta.

Zigor betearazpenari begira, oinarrizko eskubideak mugatu ahal dira, beti ere minimo batzuk errespetatuz. Hots, horretarako ezinbestekoa da murriztapen horiek kondena-epaian, zigorraren zentzuan eta Espetxe-legean hura berariaz aurreikusita egotea. JBBFaren kasuan, aldiz, hori guztia, beharrezko oinarri juridikorik gabe egin da, neurri horiek sortu zirenetik instrukzio eta zirkularren bidez arautu baitira. Horrek zuzenean talka egiten du EK 9.3. artikuluan aurreikusitako legezketasun printzipioarekin, hori argi eta garbi urratuz. Izan ere, Auzitegi Gorenak 2009ko martxoaren 17ko Epaian ezarri zuen erabilitako instrukzio eta zirkularrak ez zirela bide egokia barneratuen eskubideak eta betebeharrak arautzeko, argi utziz horrelako arauen bidez barne-arauak baino ezin zirela arautu, eta ez oinarrizko eskubideak mugatu (soilik legearen esku geratuz ahalmen hura).

Epaiak ezarritako jurisprudentzia-aldaketak Espetxe Erregelamenduaren aldaketa eta 12/2011 Instrukzio berriaren sorrera eragin zuen, besteak beste, Espetxeetako Administrazioari presoen fitxategiak ezartzeko ahalmena emanaz. Dena den, gure iritziz, praktikan denak bere horretan jarraitu zuen. Izan ere, erregelamendu berriaren bitartez Espetxe Administrazioari fitxategiak ezartzeko ahalmena eman zitzaion arren, Administrazioak aurretik hura ere aurrera eramaten zuen, nahiz eta legezkoak ez ziren arau-testuen bitartez burutu. Gainera, gaur egun ere Legeak aurreikusten ez dituen neurri asko aplikatzen jarraitzen dira, gehienak establezimenduen ordena- eta segurtasun-irizpideen arabera aplikatuz.

LAUGARRENA. Fitxategian barneratu bat sartzeak erregimen berri bat automatikoki aplikatzea dakarrenik esan ezin bada ere, barneratuak taldetan banatzen dituen arau batetik abiatzea neurri orokorrak eta ia automatikoak hartzea errazten du, horrek zenbait kasutan ezarpen indiskriminatua ekarri ahal duela esan daitekeelarik. Izan ere, ez dira preso bakoitzaren ezaugarri pertsonalak kontuan hartzen, talde zehatz horien ezaugarri komunak baizik, eta horren arabera neurri batzuk aplikatzen dira, interes orokorra presoen beharren gainetik kokatuz (aurrez aipatutako KAA 262/1993, uztailearen 23koa, 3. OJ.).

Hori dela eta, egungo JBBF erregimena ezarrita dagoen bezala, presoen talde bereizituak eginez, banakako tratamendu-programak eratu beharko liriateke, betiere presoen ezaugarri desberdinak kontuan hartuta, eta, horrela, segurtasun-neurrien tratamendu automatizatua saihestu. Hala eta guztiz ere, horrek ez du esan nahi talde horietan dauden pertsonentzat segurtasun- edo prebentzio-neurri jakin batzuk ezarri behar direnik, espetxe-sistema kasu horiek jada aurreikusten dituzten hainbat erregimenek osatzen dute eta. Hala, neurri horiek beharrezkoak izatekotan, legean araututakoak izan beharko liriateke, eta ez zirkularren eta instrukzioen bidez, orain arte egin den bezala. Gainera, horien ezarpenerako ezinbestekoa izan beharko litzateke horiek justifikatuak izatea, «ordena- eta segurtasun-arrazoietan oinarritutakoak» bezalako formulak debekatuz.

BOSGARRENA. Banakako tratamenduez gain, 2011. urteko Espetxe Erregelamenduaren 65.3. artikuluan aurreikusi zen bezala, funtzionarioen talde

espezializatuak eratu beharko lirateke, prestakuntza espezializatua izan beharko luketenak; modu horretan, ezaugarri desberdinak dituzten pertsonekin lan egin dezaten.

Horrekin batera, jakina, prebentzio-mekanismo batzuk eskaini beharko lirateke, funtzionarioek presoen eskubideak urratu ez ditzaten, eta egitekotan, horiei aurre egiteko. Gaur egun, egia da ELOOK Espetxeratuena Zaintzarako Epailearen aurrean salaketa mekanismo batzuk eskura uzten dituela, baita Herriaren Defendatzailearen aurrean horiek abian jar daitezkeela ere. Hala ere, horiek hein handi batean ez dira nahikoak. Hortaz, aurrekoak eraginkorrak izateko mekanismoak sortzeaz gain, presoak arlo honetan ahalduzko beste tresna batzuk sortu beharko lirateke, hala nola, presoek aholkularitza juridikoa ematea, haien eskubideak eta defentsarako mekanismoak ezagut ditzaten.

SEIGARRENA. Espainiako espetxe-sistemak erabateko aldaketa behar du. Horrek gehiago eragin beharko luke zigorren birsozializate-printzipioan, eta barneratua espetxetik atera ostean modu zintzo batean bizitzeko prestatu beharko luke, neurri larri eta murriztaileekin zigortu beharrean, JBBF erregimenak egiten duen bezala.

Helburua, beraz, presoak birgizartratzea izan beharko litzateke beti, hori oztopatzen duten neurriak alde batera utziz, baita presoek ematen zaien tratamendu automatikoa debekatuz ere. Hala ere, Konstituzio Auzitegiak EK 25.2 artikuluari buruz egiten duen interpretazio mugatuaz jabetuta, espetxe-sistemak, gutxienez, legezotasun- eta proportzionaltasun-printzipioa errespetatzeko ezinbestekoa dena bermatu beharko luke, betiere presoek oinarritzko eskubideak errespetatuz, oinarritzko eskubideak hobeto bermatuko dituen espetxe-sistema bat eratzeke helburuarekin.

7. ERREFERENTZIA BIBLIOGRAFIKOAK ETA BESTELAKO ITURRIAK

7.1. Bibliografia

- BRANDARIZ GARCÍA, José Ángel, “Notas sobre el régimen penitenciario para penados considerados extremadamente peligrosos: Departamentos especiales y F.I.E.S.-1 (CD)”, *Estudios Penales y Criminológicos*, 135. zk., 2012.
- CAROU GARCÍA, Sara, *Primer grado penitenciario y Estado de Derecho. El estatus jurídico de los reclusos en régimen de máxima seguridad*, J.M Bosch, Bartzelona, 2017.
- CERVELLÓ DONDERIS, Vicenta, *Derecho penitenciario*, 1. argitalpena, Tirant lo Blanch, Valentzia, 2001.
- CERVELLÓ DONDERIS, Vicenta, *Derecho Penitenciario*, 4. argitalpena, Tirant Lo Blanch, Valentzia 2016.
- CERVELLÓ DONDERIS, Vicenta, “Los derechos sin libertad: el lenguaje de la imagen”, VIVES ANTÓN, Tomás Salvador.; CARBONELL MATEU, Juan Carlos; GONZÁLEZ CUSSAC, José Luis; ALONSO RIMO, Alberto; eta ROIG TORRES, Margarita (Koord.), *Crímenes y Castigos. Miradas al Derecho penal a través del arte y la cultura*, Tirant lo Blanch, Valentzia, 2014.
- CERVELLÓ DONDERIS, Vicenta, “Revisión de legalidad penitenciaria en la regulación del régimen cerrado y los FIES”, *La ley penal: revista de derecho penal, procesal y penitenciario*, 72. zk., 2010.
- CHAVES PEDRÓN, César, “Referencia a las Fuerzas y Cuerpos de Seguridad del Estado en la Legislación Penitenciaria”, CERVELLÓ DONDERIS, Vicenta eta ANTÓN BARBERÁ, Francisco (Zuzend.), *Estudios Sobre la Ciencia de la Seguridad. Policía y seguridad en el Estado de Derecho*, Tirant Lo Blanch, Valentzia, 2012.
- ESPAINIAKO BARNE MINISTERIOA, Espetxeetako Idazkaritza Nagusia, *Población reclusa penada según grado de tratamiento*, 2021eko abendua.
- GONZÁLEZ COLLANTES, Tàlia, “Los ficheros de internos de especial seguimiento: un ejemplo de la penetración de la cultura de emergencia y la excepcionalidad en el ámbito penitenciario”, *I Congreso Internacional de Seguridad, Justicia y Sistema Penal*, Valentzia, 2014.
- GONZÁLEZ COLLANTES, Tàlia, “Prisión y terrorismo yihadista: los FIES como medida penitenciaria de prevención de atentados, de adiestramiento y reclutamiento con fines terroristas”, ALONSO RIMO, Alberto; CUERDA ARNAU María Luisa; FERNÁNDEZ HERNÁNDEZ, Antonio (Zuzend.), *Terrorismo, sistema penal y derechos fundamentales*, Tirant lo Blanch, Valentzia, 2018.
- GUIASOLA LERMA, Cristina, “Horas de luz: régimen penitenciario cerrado y política criminal de emergencia”, VIVES ANTÓN, Tomás Salvador.;

- CARBONELL MATEU, Juan Carlos; GONZÁLEZ CUSSAC, José Luis; ALONSO RIMO, Alberto; eta ROIG TORRES, Margarita (Koord.), *Crímenes y Castigos. Miradas al Derecho penal a través del arte y la cultura*, Tirant lo Blanch, Valentzia, 2014.
- HERRIAREN DEFENDATZAILEA, *Estudio sobre la situación penitenciaria y los depósitos municipales de detenidos 1988-1996*, Madril, 1997.
 - HERRIAREN DEFENDATZAILEA, *Informe anual 2021 y debates en las Cortes Generales*, 1. bolumena, Madril, 2022.
 - LÓPEZ LORCA, Beatriz, “Aspectos penitenciarios de los delitos de terrorismo”, ÁLVAREZ GARCÍA, Francisco Javier (Zuzend.), PÜSCHEL VENTURA, Arturo (Koord.), *Tratado de Derecho Penal Español Parte Especial. VI. Delitos contra el orden público (II)*, Tirant Lo Blanch, Valentzia, 2021.
 - MARTÍNEZ MARTÍNEZ, Miguel Ángel., “5. Estrategias de control: medidas de seguridad penitenciaria”, ALONSO RIMO, Alberto; CUERDA ARNAU María Luisa; FERNÁNDEZ HERNÁNDEZ, Antonio (Zuzend.), *Terrorismo, sistema penal y derechos fundamentales*, Tirant lo Blanch, Valentzia, 2018.
 - MONTERO AROCA, Juan; GÓMEZ COLOMER, Juan Luis; BARONA VILAR, Silvia; ESPARZA LEIBAR, Iñaki; ETXEBERRÍA GURIDI, José F., *Derecho Jurisdiccional III, Proceso Penal*, 27. argitalpena, Tirant Lo Blanch, Valentzia, 2019.
 - RÍOS MARTÍN, Julián Carlos; PASCUAL RODRÍGUEZ, Esther; ETXEBARRIA ZARRABEITIA, Xabier; *Manual de ejecución penitenciaria. Defenderse de la cárcel*, 2. argitalpena, Universidad Pontificia Comillas, Madril, 2018.
 - RÍOS MARTÍN, Julián Carlos, “Los ficheros de internos de especial seguimiento (FIES)”, *Cuadernos de Derecho Penitenciario*, 3. zk., 1998.
 - RÍOS MARTÍN, Julián Carlos eta CABRERA CABRERA, Pedro José, *Mil voces presas*, Universidad Pontificia Comillas, Madril, 1998.
 - RODRÍGUEZ, Juan Manuel, *El primer FIES: Patxi Zamoro. El primer luchador contra el régimen de exterminio FIES: Patxi Zamoro*, 2009.
 - SOLAR CALVO, Puerto, *El sistema penitenciario español en la encrucijada: una lectura penitenciaria de las últimas reformas penales*, AGENCIA ESTATAL BOLETÍN OFICIAL DEL ESTADO, Madril, 2019.
 - TARRÍO GONZÁLEZ, Xosé, *Huye, hombre, huye: diario de un preso FIES*, Virus, Bartzelona, 1999.

7.2. Araudia

- Espainiako Konstituzioa. Estatuko Aldizkari Ofiziala, 1978ko abenduaren 29a, 311. zk.
- Espainia. 1/1979 Lege Organikoa, irailaren 26koa, Espetxeei buruzkoa. Estatuko Aldizkari Ofiziala, 1979ko urriaren 5koa, 239. zk.
- Espainia. Errege Dekretua, 1882ko irailaren 14koa, Prozedura Kriminalaren Legea onartzen duena.
- Espainia. 6/1985 Lege Organikoa, uztailaren 1ekoa, Botere Judizialari buruzkoa. Estatuko Aldizkari Ofiziala, 1985eko uztailaren 2koa, 157. zk.
- Espainia. 38/1988 Legea, abenduaren 28koa, Mugaketa eta Ezarpen Judizialari buruzkoa. Estatuko Aldizkari Ofiziala, 1988ko abenduaren 30ekoa, 313. zk.
- Espainia. 30/1992 Legea, azaroaren 26koa, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearena. Estatuko Aldizkari Ofiziala, 1992ko azaroaren 27koa, 285. zk.
- Espainia. 10/1995 Lege Organikoa, azaroaren 23koa, Zigor Kodeari buruzkoa. Estatuko Aldizkari Ofiziala, 1995eko azaroaren 24koa, 281. zk.
- Espainia. 190/1996 Errege Dekretua, otsailaren 9koa, Espetxeen Erregelamendua onestekoa. Estatuko Aldizkari Ofiziala, 1996ko otsailaren 15ekoa, 40. zk.
- Espainia. Gardentasun eta Gobernu Onaren Kontseilua. 1996/2016 Ebazpena, uztailaren 22koa, *Resolución de Reclamación presentada al amparo del artículo 24 de la Ley 19/2013, de 9 de diciembre, de Transparencia, acceso a la información pública y buen gobierno.*
- Espainia. Espetxeetako Zuzendaritza Nagusia. 21/1996 Instrukzioa, abenduaren 16koa, JBBF delakoaren aplikazioa arautzen duena.
- Espainia. 6/1997 Legea, apirilaren 14koa, Estatuko Administrazio Orokorraren Antolamendu eta Funtzionamenduari buruzkoa. Estatuko Aldizkari Ofiziala, 1997ko apirilaren 15ekoa, 90. zk.
- Espainia. Espetxeetako Zuzendaritza Nagusia. 6/2006 Instrukzioa, otsailaren 22koa, espetxeetako segurtasunaren alorrean jarduteko protokoloari buruzkoa.
- Espainia. Espetxeetako Idazkaritza Nagusia. 12/2011 Instrukzioa, uztailaren 29koa, Jarraipen Bereziko eta Segurtasun Neurriei buruzkoa.
- Espainia. 734/2020 Errege Dekretua, abuztuaren 4koa, Barne Ministerioaren oinarritzko egitura organikoa garatzen duena. Estatuko Aldizkari Ofiziala, 2020ko abuztuaren 5ekoa, 211. zk.
- Giza Eskubideak eta Oinarritzko Askatasunak Babesteko Europako Hitzarmena, Erroman egina, 1950eko azaroaren 4an. Espainiak berretsia 1979ko irailaren 26an. Estatuko Aldizkari Ofiziala, 1979ko urriaren 10a, 243. zk.

- Nazio Batuak. Batzar Nagusiak 2015eko abenduaren 17an onartutako ebazpena. 70/175. Presoen Tratamendurako Nazio Batuen Gutxieneko Arauak (Nelson Mandela Arauak), 2016ko urtarrilaren 8a.

7.3. Jurisprudentzia

- Konstituzio Auzitegiaren 2/1987 Epaia (1. Sala), 1987ko urtarrilaren 21ekoa (940/1985 eta 949/1985 Babes-errekurtsoak, metatuak).
- Konstituzio Auzitegiaren 2/1987 Autoa (2. Sala), 1987ko urtarrilaren 9koa (786/1986 Babes-errekurtsoa).
- Konstituzio Auzitegiaren 150/1991 Epaia (Osoko Bilkura), 1991eko uztailaren 4koa (1407/1989, 2187/1989, 187/1990 eta 188/1990 Konstituzio-kontrakotasun-auziak, metatuak).
- Konstituzio Auzitegiaren 262/1993 Autoa (2. Sala), 1993ko uztailaren 23koa (1524/1992 Babes-errekurtsoa).
- Konstituzio Auzitegiaren 341/1993 Epaia (Osoko Bilkura), 1993ko azaroaren 18koa (1045/1992, 1279/1992 eta 1314/1992 Konstituziokontrakotasun-auziak, metatuak).
- Konstituzio Auzitegiaren 241/1994 Autoa (2. Sala), 1994ko irailaren 15ekoa (3081/1993 Babes-errekurtsoa).
- Konstituzio Auzitegiaren 119/1996 Epaia (2. Sala), 1996ko uztailaren 8koa (3081/1993 Babes-errekurtsoa).
- Konstituzio Auzitegiaren 141/1999 Epaia (1. Sala), 1999ko uztailaren 22koa (3058/1995 Babes-errekurtsoa).
- Konstituzio Auzitegiaren 283/2000 Epaia (1. Sala), 2000ko azaroaren 27koa (4642/1997 Babes-errekurtsoa).
- Konstituzio Auzitegiaren 89/2006 Epaia (1. Sala), 2006ko martxoaren 27koa (6036/2002 Babes-errekurtsoa).
- Auzitegi Nazionalaren 1415/2004 Epaia (Administrazioarekiko Auzi-jurisdikzioko Sala, 1. Atala), 2004ko martxoaren 1ekoa (1490/2001 Errekurtsoa).
- Auzitegi Gorenaren 2555/2009 Epaia (Administrazioarekiko Auzi-jurisdikzioko Sala, 5. Atala), 2009ko martxoaren 17koa (9576/2004 Errekurtsoa).
- Madrilgo 3 zenbakiko Probintzia Auzitegiaren Autoa, 1995eko uztailaren 12koa.

ERANSKINA: JARRAIPEN BEREZIKO BARNERATUEN FITXATEGIEN INGURUKO ZENBAIT KASU ETA TESTIGANTZA

Lanean zehar ikusi ahal izan da, nazioarteko araudiak agindutakoa alde batera utziz, JBBF delakoak oinarri juridiko eskasa duela Espainiako estatuan. Are gehiago, indarrean dagoen araudiak finkatutakoa zorroztasunez aztertzen bada, JBBFak zenbait puntutan hura urratzera heldu dela agerian geratzen da, nahiz eta horren aztarnak jurisprudentzia mailan gutxi izan.

Horregatik, fitxategiek espetxe-sisteman izandako eragina nolakoa izan den (eta oraindik ere den) jakiteko ezinbestekoa da JBBF barneratu gisa espetxeratuak izan diren pertsonen lekukotzak aztertzea. Atal honetan aipatuko diren testigantzak beherago erantsita daude, irakurleak lana irakurri bitartean adierazitakoa egiaztatu nahi izanez gero eskura ditzan.

Angel Manuel Zamoro Durán, Patxi Zamoro izenez ezaguna, JBBF erregimena aplikatu zitzaion lehenengo preso izan zen. Zamorok, *“A ambos lados del muro”* liburuan, heriotzarik txarrena bizitzan sufritutakoa zela deskribatu eta espetxean emandako garaia kontatzen du. Juanma Rodriguezek, *“El primer FIES: Patxi Zamoro”*ren autoreak, Zamororen zenbait testigantza jasotzen ditu, jarraian aipatuko direnak¹¹⁷.

Bertan zehazten denaren arabera, Patxiren aburuz, espetxe-sistema ezagutzen duen inork ezin du sinetsi kartzelak birgaitzen duenik. Ez da kasualitatea espetxeak preso bere ingurune naturaletik urruntzea. Izan ere, bere ustetan, JBBF erregimenaren helburua arrazoi politikoengatik zein kartzelan duten errebindikazio-izaeragatik traba egiten duten pertsonak neutralizatzea, psikologikoki tratatzea eta suntsitzea da.

Zamorok liburuan azaltzen du berak espetxean pasatako garaian gelaxkek ez zutela ez altzaririk ez ispilurik, horma biluziak eta oheen azpian zirrindolak besterik ez. Ispiluei lotuta, adierazten du Torreroko espetxean gaua eman zuenean aurpegia ispilu batean ikusteko aukera izan zuela. Bi urte zeramatzan ikusi gabe. Gainera, azaltzen du espetxean sartzean arropa kentzen zietela eta lan-jantzi bat ematen zietela, posta sistematikoki kontrolatzen zutela eta ziega- zein espetxe-aldaketak etengabeak zirela. Hau guzti hau, segurtasuna mantentzearen aitzakiapean.

Bestalde, *“Mil voces presas”* liburuan JBBFen barneratutako presoentzako testigantza anonimoak jasotzen dira¹¹⁸. Bertan, espetxeetako funtzionarioen jipoiei edo tratu txar psikologikoei buruzko hainbat lekukotza jasotzen dira, preso horietako batzuk ospitalera eramatera helduz.

¹¹⁷ RODRÍGUEZ, Juan Manuel, *El primer FIES: Patxi Zamoro. El primer luchador contra el régimen de exterminio FIES: Patxi Zamoro*, 2009.

¹¹⁸ RÍOS MARTÍN, Julián Carlos eta CABRERA CABRERA, Pedro José, *Mil voces presas*, Universidad Pontificia Comillas, Madril, 1998, 54-174. or.

Besteak beste, liburuan zehar hainbatetan aipatzen dira funtzionarioen aldetik presoek emandako jipoiak, horiek mota askotakoak izan zitezkeelarik: ateari kateatuta, lerro bat osatuz, edo norbaitek "ausazkotzat" jotzen duen moduan egindakoak¹¹⁹.

Gainera, espetxeetako egunerokotasunari presoek zuten tratamendu-aukera gehituz gero ez da harritzekoa suizidioa eta autolesioak bezalako gertaerak agertzea¹²⁰. Liburuan presoek egindako autolesioei buruzko lekukotza ugari daude, esate baterako, urkatuz haien buruaz beste egiten saiatzea, lixiba, aihotz edota kasette pilak ahoratzea, eta sabelean burdinak sartzea¹²¹.

Horrek guztiak argi eta garbi uzten du zein den birgizarteratze-programen emaitza. Alegia, gorroto-dinamikak behin eta berriz elikatzea eta gizartearekiko gorrotoa sortzea¹²². Izan ere, anitzak dira kartzelan urteak igaro ondoren gizartearekiko gorrotoa sentitzen dutela adierazi duten testigantzak.

Azken finean, Xosé Tarriók adierazi zuen moduan¹²³, zigor-mehatxu etengabearen oinarritutako errepresio-sistema horrek —JBBFari erreferentzia eginez— ez zuen inolako oinarririk. Izan ere, bizikidetzaren sustatu beharrean, suntsitu egiten zuen, sistema hau sufritzen zutenak gaiztotuz, haiengan gorrotoa eta indarkeria piztuz. Are gehiago, erregimena errealitate hilgarri gisa definitzen du, zeinetan espetxean sartu ondoren, pertsona orok bere duintasuna, sentimenduak eta balioak osorik mantentzen saiatu behar zen.

Aipatu berri diren lekukotzen iturri dira jarraian aurkitzen ditugun testuak. Atal honetan adierazitako testuak gazteleraz idatzitakoak izango dira, lekukotzak hizkuntza horretan jasota daude eta. Hala egitearen arrazoia hizkuntzak berak izandako ñabardurak ez galtzea da. Era berean, aipatzea, testu batzuek gaztelerazko akats gramatikal eta ortografikoak dituztela, horiek ondo ulertzen direlakoan zuzendu gabe utziko dira.

- **RODRÍGUEZ, Juan Manuel, *El primer FIES: Patxi Zamoro. El primer luchador contra el régimen de exterminio FIES: Patxi Zamoro, 2009***

«Nadie que conozca el sistema penitenciario, puede creer que la cárcel rehabilita. [...] No es casualidad que la cárcel aleje al preso de su entorno natural. Te apartan de las experiencias necesarias para crecer como persona y, una vez aquí, descubres que existen más cárceles dentro de la cárcel; son los grados, las fases dentro de éstos, los regímenes especiales, los aislamientos.

¹¹⁹ RÍOS MARTÍN, Julián Carlos eta CABRERA CABRERA, Pedro José, *Mil voces presas*, Universidad Pontificia Comillas, Madril, 1998, 97. or.

¹²⁰ *Ibidem.* 172. or.

¹²¹ *Ibidem.* 173. or.

¹²² *Ibidem.* 174. or.

¹²³ TARRÍO GONZÁLEZ, Xosé, *Huye, hombre, huye: diario de un preso FIES*, Virus, Bartzelona, 1999, 114. or.

[...] El objetivo del Régimen FIES era ser una herramienta para neutralizar, tratar psicológicamente y destruir a personas que molestasen, bien por razones políticas o por su carácter reivindicativo en la cárcel. Las celdas no tenían ni muebles ni espejos, sólo paredes desnudas o argollas debajo de las camas. Te quitaban la ropa y te daban un mono, intervenían la correspondencia sistemáticamente y los cambios de celda eran continuos, es decir, hoy vas a estar en la 16 y probablemente, si mañana no te llevan a otra, con toda seguridad pasado mañana te van a cambiar. Lo mismo con el cambio de cárcel. Te tienen un mes, dos meses, tres, cuatro, cinco, seis, y te llevarán a otra prisión. Ellos dicen que esto es por razones de seguridad y yo digo que es mentira, y no hay nadie que me lo pueda cuestionar. Dicen que no tienes un espejo por medidas de seguridad, pero el simple plástico transparente de las ventanas o las pantallas de las televisiones que conceden como prerrogativa a aquel que no tiene partes es igual de cortante.

Dicen que lo hacen para que uno no se autolesione o no agrede a un carcelero o a otro preso. Lo de agredir a otro preso es absurdo, porque estás las 24 horas del día en aislamiento. Y lo de agredir a un carcelero es imposible, porque la celda tiene una puerta automática que sólo se abre cuando ellos van a entrar, y cuando entran lo hacen 10 ó 12 protegidos con porras y escudos.

[...] Cuando hice noche en la prisión de Torrero porque iba a juicio por el motín de Daroca tuve ocasión de verme la cara en un espejo. Llevaba dos años sin verla. Encontré arrugas que no conocía. Alucinaba con cualquier parte de mi cara. Me habían hecho perder un poco mi identidad. Eso añadido al hecho de que, por medidas de seguridad, te quiten el anillo, una cadena. El reglamento dice que no se pueden tener objetos de valor porque te los puede quitar un preso o puedes trapichear con ellos, pero un preso FIES no tiene esas oportunidades. No puede vender a nadie porque no está con nadie, a menos que sea el carcelero, ni tampoco puede quitárselas a nadie, porque no está con nadie. Se trata de desarraigarte de tu memoria emocional».

- **RÍOS MARTÍN, Julián Carlos eta CABRERA CABRERA, Pedro José, *Mil voces presas*, Universidad Pontificia Comillas, Madril, 1998, 54-174. or.**

«En esta prisión, y hablo por mi, los malos tratos han sido mentales que duelen más que los físicos. Y siempre ha sido por reivindicar mis derechos a una reinserción y rehabilitación individualizada sobre mi persona» (54).

«Desde pegarme palizas con porras y espray, hasta tenerme desnudo dos días enteros y esposado, entrando a pegarme, normalmente en los cambios de guardia "el repaso"¹²⁴... como suelen decirle los carceleros. Por otro lado, sometendome a malos tratos psicologicos, como decirme 'que era un hijo de puta, que acabaría ahorcandome» (97).

¹²⁴ "Errepasoa" esamoldea jipotzea adierazteko erabiltzen da. Termino hau hainbat aldiz agertzen da testuan zehar, hainbat kartzeletako lekukotzetan. Beraz, badirudi kartzelen azpimunduan nahiko finkatuta dagoen terminoa dela.

«Esposado de pies y manos, algun puñetazo y empujones, humillaciones indignas para un ser humano, dejarte sin ropa, hecharte agua a presión, atormentarte psicológicamente, incitarte a que te cortes las venas, etc. En mis brazos hay 33 cortes de venas, he sufrido mucho en estos campos de exterminio» (97).

«Es muy abundante la alusión a los apaleamientos colectivos: "E pasado situaciones en las que me an llegado 4 o 5 funcionarios, incluso hasta mas y me an pateado y apaleado. Me han echo de todo y an quedado inmunes. Encima e sido expedientado con sanciones muy graves. Incluso en la prision de XXX por negarme a irme a celdas porque me querian quitar 1 hora de disfrute del patio, cuando solamente tenia derecho a 2 horas. Me pegaron una paliza que me dejaron unos días que no podia ponerme derecho. Encima tuve que cumplir un monton de días de aislamiento, y lo peor es que me habrieron una causa por el juzgado, por la cual me pedian 3 años y estoy esperando el fallo"; "Me an aporreado entre varios guardias esposado a la cama y siguieron dando leña en numerosas ocasiones, de hecho tengo denuncia y te puedo decir que no le corre prisa a la justicia pues ya pasaron 4 años, cuando a mi me arruinaron en menos de 1"; "por ejemplo que se te metan en la celda cuatro o cinco guardias armados con porras y te empiecen a dar porrazos hasta que se cansen"» (97).

«Sobre esta base, y teniendo en cuenta las limitadísimas posibilidades de tratamiento, apenas un abordaje farmacológico y poco más, no es nada extraño que el suicidio haga su aparición una y otra vez, como tentación cotidiana y como forma de llamar la atención respecto de las durísimas condiciones en que la persona vive (172).

[...] En muchos casos se trata de autolesiones que no revisten una gravedad mortal [...]. Lo más habitual son los cortes en muñecas y brazos ("chinarse"), pero también hay otras modalidades: "El que no se ahorca se intenta suicidar ingiriendo [*ingiriendo*] lejía o tragándose cuchiyas [*cuchillas*]o pilas de cases [*cassette*]"» (173).

«De ser un chico normal, me he convertido en un asesino en potencia, he perdido todo respeto por la vida humana. Me han despojado de toda clase de sentimientos, sólo tengo rencor y odio. La sociedad tiene la delincuencia que se merece. Me he intentado suicidar 10 veces [...]. Mis deseos de matar van en aumento» (174).

«Lo que más se engendra en estas casas es mucho odio y mucha impotencia, al ver como todo lo escrito en leyes y reglamentos, se vulnera constantemente. Para más tarde ver y oír por televisión que los presos viven de "puta madre", con tele, ducha, etc.» (174).

«Lo que yo pienso que voy a tener sin querer es un rechazo hacia la sociedad, es algo incosciente [*inconsciente*]. El odio que me hacen sentir aquellos que en vez de venir a trabajar vienen a putear al personal, temo que el día de mañana lo quiera descargar sobre una sociedad que calla y consiente» (173).

- **TARRÍO GONZÁLEZ, Xosé, *Huye, hombre, huye: diario de un preso FIES*, Virus, Bartzelona, 1999**

«Sonaba cruel, pero era la realidad, una realidad fatal que cualquier ser humano podía experimentar con simplemente cometer un error, ingresar en prisión y, una vez dentro de la misma, intentar conservar íntegra su dignidad, sus sentimientos y sus valores. El sistema se alimenta de carne humana. Te obliga a participar con el chantaje de la cárcel; dentro de ésta, del castigo. [...] Todo aquel sistema represivo, basado en la constante amenaza de castigo, carecía de fundamento alguno, era torpe e insensato, ya que en vez de fomentar la convivencia, la destruía, envileciendo a los que lo llevaban a cabo, suscitando odio y violencia en los que los sufrían.» (114).